

Herririk Herri |2|

Durangoko 12 lanpostuetarako izen-ematea astelehenean hasiko da

Ekonomia |10|

27 saltoki eta "familia guztiarendako" ekintzak Durangoko Aukera Azokan



Berbaz |9|

Asier Astigarraga: "Toponimia azterketa egiten bost urte eman ditut"

BI-633an lur azpiko pasabidea eraikitzea eskatu diote Aldundiari

- > Mallabiko Osma, Gereaa eta Zengotita auzoetan, bidea gurutzatzeko lau errei zeharkatu behar dituzte.
- > Aldundiari lur azpiko pasabidea egin dezala eskatzeko sinadurak batzen dabilta auzotarrak.

3



K.Aginako

Xabi Etxeita: "Orain partiduak jokatzea eta esperientzia hartzea dut helburu"

KIROLAK • Xabi Etxeita zornotzarrik Cartagenan jokatuko du denboraldia amaitu arte, Athleticcek utzita. Bilboko taldean jokatzeke minutu gutxi izango zituen jakitun, Cartagenaren eskaintza onartu du. Aste bi daramatza han, eta pozik dago; "klubak zein taldekideek oso ondo hartu naute", dio.

25



Durangaldeak bat egingo du Martxoaren 8ko aldarriekin

Durangaldea • Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, ekitaldi ugari antolatuko dituzte eskualde osoan. Berdintasuna helburu hartuta, erakusketetan, berbal dietan, mahai-inguruetan, kontzentrazioetan eta gainerako ekintzatan parte hartzeko deia egin dute. Domekan, Lilakrosak kolorea emango dio Durangori. **Gehigarria**

•lurreta

A8ko peajeak bueltatzeko mozioa ez du onartu Udalak **7**

•Atxondo

Lau behargin kontratatuko ditu Udalak obra txikiak egiteko **3**

•Elorrio

eTwinning bideo lehiaketan Institutukoak garaile **6**

•Abadiño

Gaur iluntzean aurkeztuko dute Euskara Plana **4**

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

Entia Industingunea
710
48240 BERRIZ
(Bizkaia)
94 682 45 50
www.alkimax.com
alkimax@alkimax.com

HERRIRIK HERRI >

DURANGO



Dani Maeztu eta Iker Urkiza zinegotziak prentsaurrekoan.

Aralarrek alokairuko etxebizitzaren alde egitea proposatu du

Bizilekua alokatu egin gura duten 1.884 durangarrek Etxebiden izena emana dutela dio

Gobernu Taldearen aurrekontu proposamenari Aralarrek aurkeztutako zuzenketen artean, alokairuko etxebizitzak sustatzearen garrantzia azpimarratu eta hori gauzatzeko milioi bat euroko atala sortzea proposatu du. Zuzenketak aurrekontuei dagokion udalbatzarrean zuzenean aurkeztuko dituzte eta bana banan eztabaidatuko dira.

2010erako aurreikusita dauden 250 etxebizitza berriak egitea "indarrean dagoen plangintza urbanistikoa garatzea besterik ez da" eta gakoa "kudeaketan" dagoela gaineratu du; bitokiak jabetzan ala alokairuan ematean, "apustua ahalik eta etxebizitza gehien alokairuan ematea da eta zirriborroan ez dugu hori ikusi". "Aurrekontuak hipotekatu barik, etxebizitzaren %30-50 artean alokairuan ematea da proposamena".

Azaldu dutenez, 2009an Etxebiden Durangoko 1.884 lagun dau-

de izena emanda etxebizitza alokairuan jaso guran. Bestalde, 531 lagunek uko egin diote jabetza bidezkoari. Horregatik, babeseko etxebizitza ofizialak jabetzan emateko dinamika "berraztertze beharra" azpimarratu dute.

Rokodromoa Tabiran

Beste proposamenen artean San Agustingo antzinako monastegi-ko lehengo egoitzan zerbitzu sozial guztiak bateratuko lituzkeen proiektua egiteko 100.000 euro onartzea dago; baita igerileku zaharren lur-zatian rokodromoa eta skate pista egokitzea (60.000 euro proiekturako) eta Azterlanen egoitza ohian Kirolene eta UNEDen egoitza birtuala jartzea ere.

Azkenik, enplegu politikari buruz, alde zaharrean zein auzoetan enpresa proiektuak sortu gura dituztenei bideratutako dirulaguntzak sortzea ere proposatu du Aralarrek. ■ J.D.

68 bizileku Odi-Bakar zegoen lur zatian

Joan zen asteko udalbatzarrean, Odi-Bakar enpresa zegoen lur zatian 68 etxebizitza egiteko partzela bi esleitzeko baldintza orria onartu zuten. Horietatik 58 babes ofizialekoak izango dira, eta beste 10 libreak. Bizkaiko Boletín Ofizialean hilabete eman ondoren, aurkeztutako promotoreen eskaintzetatik zein onartu erabakiko dute.

EAJ, PSE-EE, Aralar eta PPK baldintza orriaren alde bozkatu zuten; Talde Mistoak, berriz, kontra

EAJ, Aralar, PSE-EE eta PPK aldeko botoa eman zioten baldintza orriari, eta Talde Mistoak, berriz, kontrakoa. Oier Perez talde Mistoaren zinegotziaren esanetan, "lehenengo zenbat etxebizitza huts dauden jakin behar dugu, gehiago behar diren ala ez jakiteko".

Horrez gainera, baldintza orrian diru sarreren minimoa zehaztea "etxebizitza eskubidearen murrizketa" dela adierazi zuten, eta "alokairu sozialaren alde" egiteko eskatu zuten. ■ J.D.

Udaleko 12 lanpostuetarako izen ematea astelehenean hasiko da

Launa agente zibiko eta peoi, lokalen errebisiorako hiru lagun eta lurzoru publikoen erabilera kontrolatzeko lagun bat dira bete gura dituzten postuak

Mankomunitateak eta Aldundiak enplegua sustatzeko sinatutako hitzarmenetik 12 lanpostu dagozkie Durangoko Udalarari. Atzo argitu zituen Aitziber Irigoras alkateak lanpostuak zeintzuk izango diren. Lan-poltsan izena emateko epea martxoaren 8tik 19ra bitartekoa da, Udalak Andra Marian duen bulegoan; lanpostuen gaineko informazio osoa gaurtik Udalaren webgunean jaso daiteke.

Udalak 108.000 euroko laguntza jaso du Aldunditik asmoa gauzatzeko. Lanpostuek sei hilabeteko iraupena izango dute, eta eperik zehaztu ez arren "lanak apirilean banatzen" saiaturiko dira. Interesatuak hiru baldintza bete behar ditu: langabezian eta Durangon erroldatua egotea, eta 25 eta 55 urte artean izatea. Iazko azterketa batean "langabezia adin tarte horretan hasi zela gehien ikusi genuen, eta horregatik hautatu dugu adin tarte hori".

Honako hauek dira banatuko dituzten 12 lanpostuak: lau

Martxoaren 8tik 19ra arte egongo da lan-poltsan izena emateko aukera

Hautagaiek 25etik 55 urtera izan behar dute, eta Durangon erroldatuta egon

Mankomunitatearen eta Aldundiaren arteko hitzarmenetik 12 lanpostu dagozkie Durangoko Udalarari

agente zibiko, lau peoi, lokalen errebisiorako hiru lagun eta lurzoru publikoaren erabilera kontrolatzeko eta aztertze lagun bat.

Lau peoien zeregina arlo bitan zehaztu dute. Batetik, narriatutako espazio publikoak errekuperatzen jardungo dute: espaloiak handitzen, esaterako: "Irisgarritasuna hobetzeko helburuz hainbat lan egin dugu aurretik, baina oraindik egokitu beharreko eremu batzuk geratzen dira, eta horiek amaitzea da asmoa". Bestetik, Hiri Debebatuaren Mapan eremu arrisku-tsu moduan izendatutako tokiak argiztatuko dituzte.

Lokalen errebisiorako hiru postuak betetzeko koordinatzaile, delineatzaile eta administrari bana behar dituzte. Lanpostu hauetarako hautagai izateko beharrezkoa da eremu bakoitzean dagokion titulazioa izatea. Beste lanpostuetarako ez dute titulazio berezirik eskatzen, baina batzuetan oinarritzeko proba batzuk egingo dituztela aurreratu dute. ■ J.D.

DURANGALDEA

Esperientzia Institutua ezagutzeko jardunaldiak

Hilaren 23an Xabier Aierdi soziologoak "gaurko munduan bizitzeko gakoak" azalduko ditu

Durangaldeko Esperientzia Institutuak jardunaldiak antolatu ditu euren ohiko jardueran egiten duten lana herritarrei ezagutzera emateko helburuagaz. Durangoko Behargintzan gauzatu dituzte jardunaldiak. Orain arte, 29 lagunek parte hartu dute ekimenean.

Hain zuzen ere, hitzaldi bi antolatu dituzte. Horietako lehenengoa eguaztenez eskaini zuten Euskal Herriko Unibertsitatean soziologia irakasle den Imanol Zuberok; *Gestión de la edad, gestión del tiempo* izenekoa.

Bigarrena martxoaren 23an izango da. Xabier Aierdi soziologoa eta Ikuspegiko zuzendaria izango da hizlari, eta gaur egungo munduan bizitzeko gakoak inguruan jardungo du.

Ismene Leiza jardunaldiaren arduradunaren esanetan, "persona bakoitzak eguneroko jardueran aurkitu ditzakeen kontuen gainean antolatu gura izan

ditugu hitzaldiak; emozioak, komunikaziorako dohainak eta elikadura, esaterako".

Martxoaren 23ko berbaldean parte hartzeko nahikoa da 94 623 25 22 telefonora deitzea. Izena emateko orduan bete beharreko baldintza bakarra 55 urtetik gorakoa izatea da. Izan ere, Institutuak 55 urtetik gorako lagunekin behar egiten du. ■ J.D.

Hitzaldietan parte hartzeko baldintza bakarra 55 urtetik gorakoa izatea da

Orain arte ekimenean 29 lagunek parte hartu dutela adierazi dute hitzaldietako antolatzaileek



▣ MALLABIA

BI-633 errepidean lur azpiko pasabidea eraikitzea proposatu diote Aldundiari

Auzokideek herritarren artean sinadurak biltzeari ekin diote, ondoren Foru Aldundira bidaltzeko

Gerea, Goita, Zengotita eta Osma auzoetako bizilagunak kexu dira BI-633 errepideak sortzen dizkien arazoak direla-eta. Errepidea egin zenetik, behin eta berriz jardun dute base-rietako eta auzoetako sarrera-irteera egokiak eskatzen. Auzokideen berbetan, "ezezkoa jaso dugu orain arte, eta nahikoa arazo izan dugu, bai animaliekin ibiltzeko orduan bai oinez ibiltzerakoan ere". Gaineratu dutenez, lehen ago Oizera eramaten zituzten animaliak, baina orain, lau erre zeharkatu behar dituztenez, ezin dituzte eraman.

Orainsu ekin dio Foru Aldundiari herriarrikatsuen diren puntuak konpontzeari, bidegurutzeak moldatuz. Sarrerak eraikitzen dabilta Trabakun, Goitan eta Osman. Auzokoen esanetan,

baina, "ez diote irtenbiderik eman gura betiko arazoari, eta egin gura dituzten konponketak autoak baino ez dituzkontuan hartzen: "Foru Aldunditik adierazi digutenez, inguru honetan bizilagun gutxi dagoenez, ez du merezi inbertsio handietan sartzea". Jasotako erantzuna ez dute ontzat eman Mallabiko auzo hauetan bizi direnek.

BI-633 abiadura handiko errepidea dela kontuan hartuta, "ia ezinezkoa egiten da bide horretan ibiltzea", salatu dute bertako bizilagunek. Goita eta Gereako auzokideek, esaterako, lau erre zeharkatu behar dituzte beste aldean

Aldundiak orainsu ekin dio herriko puntu arriskutsuak konpontzeari



Errepide honetatik ibilgailu ugari pasatzen da egunero, bai Ondarrura bai Durangora bidean.

dagoen geltokian autobusa hartu ahal izateko. Eskatzen duten irtenbidea errepidea gurutzatzeko lur azpiko pasabidea eraikitzea da. Dagoeneko herriarrikatsuen biltzen hasi dira, Foru Aldundiari eskaera egiteko, eta erantzuna

Arazoari irtenbidea topatu ezean mobilizazioei ekiteko prest daudela azaldu dute auzokideek

ezezkoa izanez gero prest ei daude bestelako mobilizazioei ekiteko. Mallabiko azokide hauek diotenez, aspalditik dabilta konponbidea aldarrikatzen. Orain herritarrek batzartzen hasi direla azaldu dute. ■ J.G.

▣ BERRIZ

Antonio Menchada saria Rosa Mari Ostogainentzat

Berrizko alkate izandakoak gizarte eta kultur arloan egindako lanagatik jaso du saria

Rosa Mari Ostogainek, 1991tik 2007ra arte Berrizko alkatea izandakoak, Antonio Menchada saria jaso zuen joan zen egunean Bilboko Foru Aldundiaren egoitzan. Fundazioak Ostogain alkate zenean gizarte eta kultur arloan egindako lanagatik eman dio saria;

Antonio Menchada sariak solidaritatea saritzen dute, 1994. urtetik hona

esaterako, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren arloa sortu eta %0,7ko diru-atala garapen bidean zeuden herrietara bideratu izana edo Euskal funderoaren proiektuan-Saharar herria laguntzen duena- egindako lana. Antonio Menchada sariak solidaritatea saritzen dute 1994. urtetik. Aurten, esparru horretan lanean dabilta lau pertsonari, Euskadi Txirindularitza Fundazioari eta Gorabide elkarteak bolondresei eman diete. ■ G.A.

▣ ATXONDO

Lau behargin hartuko ditu Udalak sei hilabetetarako

Ofizial bat eta hiru peoi kontratatuko ditu, eta lan barik dauden atxondarrentzako aukera da

"Herriko obra txikietan" lan egiteko lau behargin kontratatuko ditu laster Atxondoko Udalak, David Cobos alkateak jakin eragin duenez. Datorren astelehenean zabalduko dute lanpostu horietarako izena emateko epea, eta martxoaren 18a izango da

Datorren astelehenetik hilaren 18ra arte dago izena emateko aukera

horretarako azkeneko eguna. Lan-gabezia dauden atxondarrek edukiko dute lanpostu horietara aurkezteko aukera.

Ofizial bat eta hiru peoi kontratatuko ditu Udalak, eta datozen hileotan egingo diren hainbat obratan ibiliko dira behar-rean. David Cobos alkateak aurreratu duenez, lan horien artean Apatako plazatik elizara dagoen bideko eskailerak berritzatea legoke. Horretaz gainera, autobus geltoki berria ere eraiki-

ko dute langileek, Elorrioko noranzkoan, Durangorako geltoki berria dagoenaren parean.

Mankomunitateko laguntza

Beharginak Durangaldeko Mankomunitateak emandako diru-laguntzagaz kontratatuko ditu Atxondo-

Plazatik elizarako eskailerak konpondu eta geltoki berria eraikiko dute lau beharginek

ko Udalak. Izan ere, Mankomunitateak herrietan lanpostuak sortzeko laguntzak eman berri dizkie eskualdeko Udalei, eta banaketa horretan Atxondori lau behargin kontratazoko diru-laguntza egokitu zaio. ■ A.U.

• Oinetako patologiak
• Neurriera egindako plantillak
• Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarrien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podologia Urrera Jaiaga
100. Elargokioa

GALLASTEGI
gallastegiharategiak@euskalnet.net
1955ean sortua

HARATEGI
ARTISAU ERAMA
ESPEZIALIZATUA

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

ABADIÑO



Auzo biak lotzen dituen zubi berria Zelaieta eta Muntzaratz artean

Zubia zabaltzeak ez duela auzoetako trafikoa gehitzea eragingo dio Jose Luis Navarro alkateak

Otsail erdialdetik zabalik dago Muntzaratz eta Zelaieta arteko zubia. Talde Independenteko alkatearen berbetan jaso dugunez, Muntzaratz eta Zelaieta auzoak lotzeko helburuak eta Muntzaratzko auzotarren eskariak bultzatu zituen zubia eraikitzea: Zelaietako eskolarako sarbidea hobetzeko eskaria egina zuten Muntzaratzko auzotarrek.

Orain aste bi inguru zubia zabaltzea "proba legez" pentsatu dutela azaldu digu Navarro, eta oposizioak behin baino gehiagotan kritikatu dionari erantzun: zubia zabaltzeak ez duela auzoetako trafikoa gehitzea eragingo dio alkateak; auzoen arteko komunikazioa hobetuko duela.

Zubia zabaldu aurretik trafikoaren eta hirigintzaren gaineko azterketa egiteko beharra nabar-

mendu izan du, berriz, ezker abertzaleak hainbatetan. Errepide nazionalean sortzen diren autoilarak ekidin guran, gidariek zubi horretatik herrian zehar igarotzeko hautua egin eta herrigunean trafikoa handitzea ikusten zuten arazo moduan. Zubitik igarotzen den trafikoaren abiadura geldotzeko zebra-bide goratuak ipintzea proposatu zutela Batzordeetan gogoratu du Basaurik. Auzo biak lotzea dela zubiaren funtzioa eta horixe dela dakarren onura, baina herri barruko trafikoa gehitzea eragotzeko neurriak hartzea beharrezko dela ere badiu Basaurik. ■I.E.

Zubia zabaldu orduko trafikoaren gaineko azterketa egitea beharrezkoa zela deritzo ezker abertzaleak

GARAI

Jubilatuen elkarteak, bazkide berrien bila

Bazkide kopurua behera doalata, "kezkatuta" agertu dira jubilatuen elkartekoak, eta kide berrien bila hasteko asmoa azaldu dute. 37 kidek osatzen dute gaur egun San Migel, Garaiko nagusien elkarteak.

Azken boladan, jubilatzen diren herritarrek elkartera batzeko ohitura galdu dutela adierazi dute ordezkariak. Horregatik, jendea izena ematera animatu gura dute, eta "erakartzeko zer edo zer" pentsatuko dutela aipa-

Gogoratu dute 50 urtetik gorako guztiek daukela Nagusien Elkarteak bazkide izateko aukera

tu dute. Gainera, gogoratu dute 50 urtetik gorako guztiek daukela aukera. Urtean 12 euro ordaindu behar dira parte hartzeko; Udaletxera NAN agiriaren fotokopia eta argazki bat eramatea nahikoa da elkarteak bazkide egiteko.

Bestalde, apirilean urteko batzar nagusia egingo du nagusien elkarteak. ■M.O.

Euskara Plana jendaurrean aurkeztuko dute gaur iluntzean

Errota kultur etxean gaur da, 19:30ean, herrian lehenengoz martxan ipini duten Euskara Planaren aurkezpena: 34 ekintza jasotzen ditu proiektuak

Euskararen ezagutza maila (abadiñarren %75ak badauki euskaraz) eta erabilera parekatzea helburu nagusi duen egitasmoa da gaur iluntzean Errota kultur etxean aurkeztuko dutena.

Herriko elkartearen partaidetza-gaz diseinatu duten Lehenengo Euskara Planaren barnean jasotzen diren 34 ekintzen berri eman-goto dute Oihan Vegak gidatuko duen ekitaldian. Abadiñarren artean euskararen erabilera bultzatzea jomuga duten ekintzak dira, guztiak aurten garatzekoak.

Udalbatzak iazko abenduan onartutako Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Orokorrean jasotako agertzen diren ekintzen artean, euskaldun zaharren eta euskara ikasleen artean euskarazko hartu-eman errazteko helburua duen Berbalagun egitasmoa eta herriko kirol jardueretan euskararen erabilera bermatzeko martxan ipi-

niko dituzten hainbat ekintza ere badaude. Hezkuntza arloan, lan arloan zein administrazioan euskararen erabilera bultzatzeko helburua duten ekimenak dira egitasmoan jasotako 34 ekintzak.

Planaren helburu eta jardueren nagusien berri eman eta gero, antzerki emanaldia eta luntxa antolatuko dira aurkezpena gerturatu diren herritar, elkarte eta alderdi politikoetako ordezkarietzat Udalak. Hain zuzen ere, aurkezpenean izango diren horietako asko izan dira ekintza zehatzak adostu aurretiko diagnostia egiten jardun duten Aholku Batzordean. Guztien parte hartzea eskertzeko baliatu gura dutela aurkezpena ere adierazi du Udalak. Azpimarratu dutenez, "euskararen erabilera normalizatuko bada, agintari politikoaren ahaleginaz gainera oso garrantzitsua da herritarren partaidetza ere". ■I.E.

Planaren helburu eta jardueren nagusien berri eman eta gero, antzerki emanaldia eta luntxa izango dute bertaratutakoek

Diagnostia egiten Aholku Batzordean jardun duten herritar guztiak eskertzeko helburua izan du aurkezpenak

Matiena eta Durangoko San Fausto arteko errepidea itxita, obregatik



Abadiñoko Udalak egiten diharduen obraren ondorioz, Matiena eta San Fausto lotzen dituen errepidea itxita egongo da Durangora sartzeko, Durangoko Udalak jakinarazi duenaren arabera.

Durangoko Fauste kalearen jarraipenean, Abadiñoko partean hodian eta espaloien berriztatzeak egiten dabil martxoaren 2tik Udala. Ondorioz, Durangora sartzeko norantza itxita egongo da obrek irauten duten bitartean. Durangoko Udaletik bidalitako prentsa oharrean azaltzen denez, Abadiñotik Durangora sartzeko Montorreta aldetik edo N-634 errepidetik, Iurretatik, desbideratuko dute trafikoa.

CENTRAL FORESTAL

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa
48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187
Faxa: 946 205 194

EKODEN

HORTZ KLINIKA



Arkotxa, 4 etxabea
DURANGO
Tel. **94 621 78 22**

*Hortz-protezia mugitzen bazaizu,
implanteen bidez hezurrera
finkatzeko tratamenduak jartzen
ditugu zure eskura*



*Ortodontzia-
tratamenduak,
marruskadura
txikiko braqueten
bidez, urte betean*


mutualia *ko* **Itunpeko
Klinika**

% 5 ETIK 10 ERA
A R T E K O
BEHERAPENAK
H O R T Z -
INPLANTEEN
TRATAMENDUETAN

**Zure tratamenduak 12 hilabetetan
finantzatzen ditugu, interesik gabe**

Kontsultatu gure tarifak hemen:

www.clinicaekoden.com

harritu egingo zara

ELORRIO

eTwinning bideo lehiaketa irabazi du Institutuak

Europako hainbat ikastetxe batzen duen Comenius elkarteak antolatutako lehiaketa da irabazi dutena

Duela bost urtetik Elorrioko Institutua Comenius izeneko elkarteko kidea da. Comeniusek Europako hainbat ikastetxe batzen ditu, eta euren artean elkartrukeak egiten dituzte. Elkarte horretako ikastetxeek elkarren berri izateko Interneteko gunea da eTwinning. Ikasleek esperientziak trukatzeko gainera, gune horretan bideoak ere konpartitzen dituzte. Horren haritik, Europa mailako bideo laburren lehiaketa

egin dute, eta Elorrioko ikasleak izan dira irabazle.

Elorrioko Institutuko ikasleek hainbat herrialdegaz egin dituzte elkartrukeak orain arte. Aurten, inauteri aurretik ikasle alemaniarak izan ziren Elorrioren, eta gaur joango dira Elorrioko ikasleak Alemaniara. 30 ikasle doaz, erdiak Bavierara, Hausburgora zehazki, eta beste erdiak Alemania iparraldera, Peinera, hain zuzen ere.

Ikasi eta ondo pasatu

Bideo horiek prentsa tailerra izeneko irakasgaiaren egin dituzte, Iñigo Sourrouille irakasleagaz. Sourrouillek azaldu duenez, "bideoen bitartez institutuaren beste ikuspegi bat eman gura izan dugu; ikasteaz gainera ondo pasatu eta gauza desberdinak egiten ditugula azaldu azaltzea zen helburua". Epaimahaiak jakinarazi duenez,

Gaur Alemaniara joango dira Institutuko 30 ikasle, hango ikasleekin elkartrukean

Ikasleen erdiak Hausburgora joango dira eta beste erdiak, berriz, Peinera



Bideoaren originaltasunagatik eman diete saria Elorrioko Institutuko ikasleei. Elorrioko Institutua

bideoaren "originaltasunagatik" eman diete saria, eta baita ikasle askoren parte-hartzea eragin duelako ere.

eTwinninga ardatz hartuta osatu duen bideoak hiru minutu irauten du. Bertan Elorrioko Institutuko hainbat ikasle agertzen dira abesten eta bideo osoan pre-

Ikasteaz gainera, ondo pasatu eta gauza desberdinak egiten dituztela erakustea zuen helburu bideoak

sente dagoen musika martxosori laguntzen. Gainera, ikasleek hainbat naziotako kulturari egiten diete erreferentzia eta hizkuntza askotan hitz egiten dute: frantsez, ingelesez, japonieraz... Aipatutako kultura eta nazio horietako jantziak ere erabiltzen dituzte bideoan. ■ J.D./ A.U.

Sortzez Garbiako erretaula konpontzen

Azken asteetan hainbat zati erori dira; azterketa teknikoak esango du erretaula zelan konpondu

Azken asteetan, Sortzez Garbia Basilikako erretaulako hiru zati lurrera erori dira. Erretaulara begiratu ez dirudi ezer handirik, "baina behin lurrean tamaina politekoak dira", aipatu digu Martin Aranbarri abadeak. Gainera, zatiak ez dira erretaulan zonalde bere-

Berogailuak erretaula egiteko erabili zuten kola sikatu duela uste dute, eta horregatik erori direla erretaula zatiak



Aldamioekin babestu dute erretaula dagoen zonaldea. G.Alonso

koak, hainbatekoak baino. Zonaldea andamioekin babestu dute.

Elizbarrutiko Museoko arduradunek eta Aldundiko ordezkariak erretaula aztertu dute eta arrakalak dituela eta azterketa teknikoak egin behar zaiola adierazi dute. Oraindik ez dakiet zeren ondorio izan den, baina badute susmorik: "Antza denez erretaula egiterakoan erabili zuten kola lehortu egin du berogailuak eta lehortu denean irudiak erretaulatik bereizi dira".

Orain zazpi urtetik hona, tenperatura erregulatzea eta hezetasun maila neurtzea ahalbidetzen duen berogailua dute, aurretik ez zuten horrelakorik eta "kaltea orduan sortutakoa izan daiteke", Aranbarriren ustez.

Asteon erretaula aldamiorekin babesten ibili dira eta laster egingo dute informe teknikoak

Aranbarri kezkatuta dago dagoeneko hitzartuta dauden ezkontzekin. Ez daki atzean aldamiola duela ezkondu nahiko duten. Mezak ematerako orduan ez dago arazorik, betiko moduan eta ordutegian emango ditu Basilikako abadeak. ■ J.D.

OTXANDIO

Kantu afaria Mekoletan, Mixel Etxekoparrekin

Arkotxe kultur elkarteak kantu afaria antolatu du, biharko, kantari eta txirulari zuberotarragaz

Arkotxe kultur elkarteak antolatuta bihar, 22:00etatik aurrera, kantu afaria egingo dute Mekoletan, Mixel Etxekopar abeslari, txirulari eta bertsolariagaz. Guztira, 60 bat lagun batzea itxaroten dute antolatzaileek.

Ekimenak ez du kontzertu formatua izango, Luis Mari Barrondo Arkotxeko kideak azal-

Abesti ezagunak afari giroan eta denon artean abestea da asmoa

du duenez: "Abestiak afari giroan eta denon artean abestea da asmoa. Mixelek betidanik eza gutzen ditugun abestiak kantatuko ditu eta denon artean jai-giroa sortzea da ekimenaren helburua".

Kantu afarian parte hartuko dute Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak ere, kantuan

laguntzeko; bertsoaren bat edo beste ere abestuko dute.

Iaz hasi zuten ekimena Anje Duhalde gonbidatuta. Ekimenagaz gustura geratu ziren, eta urtero Iparraldeko kantari edo musikari bat ekartzen saiatzea erabaki zuten. Aurten Mixel Etxekopar gonbidatu dute.

Mixel Etxekopar (Gotaine-Irabarne, Zuberoa, 1963) euskal txirulari, kantari eta bertsolaria da. Lanbidez irakaslea da, eskolarik eskola euskara irakasten du. Bi disko grabatu ditu Mixel Arotze eta Maddi Oihenartegaz batera. Gainera, Gotaine-Irabarneko Xirujaialdia antolatzaileetako bat ere bada. ■ J.D.

Mixel Etxekopar txirulari, kantari eta bertsolaria da, eta disko bi grabatu ditu Mixel Arotze eta Maddi Oihenartegaz

Hemen agertu gura badozu
deitu!
94 621 79 02

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

Arrike
Liburudenda
Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel. 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03



DIURRETA

A8 autobidearen peajeak bueltatzeko eskatuz mozioa aurkeztu du PPK

Ezker Batua eta PSEko zinegotziek egin dute PPren eskariagaz bat; kontra bozkatu du EAJk

Urtarrilaren 20an Bizkaiko Batzar Nagusietan PSE, PP, EB eta Talde Mistoak onartutako proposamena ekarri zuen PPKo Ramos zinegotziak martitzeneko udalbatzarrerara. A-8 autobidearen peajeak itzultzeko eskatu zuten mozioagaz bat egin zuten alderdi horiek Batzar Nagusietan, eta Iurretako Udalaren aldeko jarre-
ra gura izan zuen PPK batu.

Urtarrilaren 29ko Bizkaiko Batzar Nagusietan PSE, PP, EB eta Talde Mistoak onartutako mozioa ekarri zuen PPK

Kontra bozkatu zuten bost zinegotzi jeltzaleek, eta mozioa atzera bota alkatearen kalitateko botoagaz

Gaia Udalean baino Batzar Nagusietan landu beharrekoa dela pentsatzen dutela adierazi arren, alde bozkatu zuten Iurretako oso-ko bilkuran PSEk eta EBk. "Herritarrei eragindako kalteak ordain-

tzeko beharra" nabarmendu zuen zinegotzi sozialistak.

Iazko otsailean "A8 autobidea kudeatzeko arauaren baliobatasuna adierazi zuen sententzia" aintzat hartu eta errepidea erabiltzeagatik urteetan ordaindu behar izan dutena erabiltzaileei bueltatzeko formulak bilatzea eskatu zioten EB, PSE, PP eta Talde Mistoak, Batzar Nagusietan, Bizkaiko Foru Aldundiari.

EAJko zinegotziak, kontra Bizkaiko Batzar Nagusietan legez Iurretako Udalean ere alde bozkatu zuten sozialistek, Alderdi Popularrak eta Ezker Batuak. Udal Gobernuan dagoen EAJk, baina, mozioaren kontra bozkatu zuen.

Bost aldeko boto eta jeltzaleen kontrako bosten berdinketa alkatearen kalitateko botoak apurtu zuen. Iñaki Totorikaguena alkateak azpimarratu zuenez, "autobidearen arau berriaren idazketa prozesua martxan dagoela ez deritzogu arrazoirik dagoenik mozio hau aurkezteko". Mozioan aipatzen den sententziak Aldundiaren araudia ez duela zalantzan jartzen ere azpimarratu zuen. ■ I.E.

Haitiren zorra bertan behera uzteko eskaria

Ezker Batua alderdiak martitzeneko udalbatzarrerara ekarritako proposamena da Europako Batasunaren presidente den heinean Zapatero presidenteari eskatzea Haitiren Europarekiko zorra bertan behera uztea. EAJk eta PPK egin zuten Ezker Batuaren idatziaren alde. Testu alternatiboa aurkeztu eta abstenitu egin zen zinegotzi sozialista, eta abstenitu egin zen Borja zinegotzia ere.

Jeltzaleek eta Alderdi Popularrak egin zuten Ezker Batuak aurkezturiko proposamenagaz bat

Europako Batasunak, Munduko Bankuak, Munduko Moneta Funttsak eta Garapenerako Banku Interamerikanoak Haitigaz hartzekodun izateari uko egitea da mozioaren helburua. Urtarrilaren 12an errepublika hartan izandako lurrikarak eragindako hondamendiari aurre egin eta suspertze-ko beharrezko du zorra balio barik uztea Haitik; munduko herrialde txirotuenetarikoa baita. ■ I.E.

MAÑARIA

Herritik kanpoko kiroldegietara joateko laguntza

Eskualdeko beste herri batzuetako kiroldegietako zerbitzuak baliatzen dituzten mañariarrak diruz laguntzeko ordenantza landu dute gaur goizeko udalbatzarrean. Eskualdeko herriotan errolatuta dauden gastu bera izan dezaten mañariarrek, kanpoko izateagatik ordaindu behar izaten den diru kopurua ordaintzeko diru-laguntza emango du Udalak. Udalbatzak baiezkotzea emanda, aurrekontuetan diru-laguntza horretarako gordetako diru atala agortu arte banatuko ditu Udalak aipatutako diru-laguntzak.

Bestetik, euskara ikasten diharduten herritarrei zuzendutako diru-laguntzaren ordenantza ere mahai gainean izan dute Udalean gaur: matrikularen %50 ordaintzeko diru-laguntza. ■ I.E.

Beste herri batzuetako kiroldegietan ordaindu behar dutenaren parte bat bere gain hartuko du Udalak



Erabiltzaileei sortutako kalteak ordaintzeko beharra nabarmentzen du mozioak.

PREST



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE MARTXOAK 11 osteguna 17:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI MARTXOAK 6 larunbata 10:00-13:00

IRUN MARTXOAK 25 osteguna 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORITZA MARTXOAK 11 osteguna 18:00

ARETO NAGUSIAN



etorri aurretik izena eman!

902 110 436 - www.mondragon.edu/prest

ZALDIBAR



Zaldibarko liburutegi berria udaletxe pareko etxe berrien lehenengo solairuan dago.

Zaldibarko liburutegi berriko lanak aurreratuta daude

Lanak Aste Santu inguruan amaituko dituztela aurreikusi dute

Zaldibarko liburutegi berriko lanak nahiko aurreratuta daudela azaldu du liburutegiko arduradunak. Liburutegi berria Udaletxe parean egindako etxe eraikuntzaren beheko solairuan egongo da.

Liburuzainak azaldu duenez, “kristalak, lurreko zura eta altzariak besterik ez dira falta lanak amaitzeko”. Liburutegi berria zaharra halako bi da eta, beraz, “bi espazio bereizi izango dira, bata umeentzat eta bestea nagusientzat, lokalak horretarako ematen

Espazio aldetik liburutegi berria zaharra halako bi da, eta hainbat ordenagailu ez ezik wifia ere izango du

Lanak amaitzean 10.000 liburu inguru lekualdatu behar dituzte, eta horiekin batera hainbat altzari ere bai

du-eta”. Ordenagailuak eta wifia ere izango ditu liburutegiak eraikitzaileen eskura. Abantaila haueztaz baliatuko dira liburutegian izena eman duten 700 pertsonak. Lanak Aste Santu inguruan-edo amaituta egongo direla aurreikusten dute, baina liburutegiko arduradunak dionez, “gero liburutegi zaharretik 10.000 liburu inguru eraikin berrira eramane behar dira, eta baita altzari batzuk ere”. Idoia Mendiola garai alkateak aipatu duenez, “Mankomunitateak sortutako lanpostu bat horretara bideratuko dugu hasieran”. ■ G.A

IZURTZA

Helbide berria dauka Udalaren webguneak

www.izurtza.net da webgune berriaren helbidea; enpresa berri batek kudeatuko du zerbitzua

Gobernu Talde berria sartzeagaz batera, orain hiru urte martxan ipini zuten webgunea hobetu beharra zegoela ohartuta, enpresa bati egin dio Gobernu Taldeak Udalaren webgunea sortu eta kudeatzeko enkargua. Inguruko herrietako Udalen Interneteko guneak ikusita eta garapena etenik bakoia dela ikusita hartu ei zuten webgunea berritzeko erabakia.

Webguneak eskaintzen dituen atal guztiak oraindik martxan ez dauden arren, hemendik hilabete ingururako diseinuaren ezau-

garri nagusiak finkatuta edukitzea aurreikusten dute Udalean. Oraingoan, *Izurtza denon artean* gobernuaren aldizkaria jaisteko aukera, iazko lehiaketara aurkeztutako argazkien bilduma, garraio publikoari buruzko informazioa, eta abar daude erabilgarri. ■ I.E.

Webgunearen atal guztiak oraindik martxan ez dauden arren, hilabete barru aukera guztiak erabilgarri izango dira

Itxura berria hartzen doa eliza ingurua

San Nikolas elizaren ingurua urbanizatu eta parke moduan egokitzea eta BI-623 errepiderako sarbidea egokitzea helburu duten lanak burutzen dabilta iazko urte amaieratik. “Urte hasieran lanak atzeratu samar joan diren arren, azken asteetan asko aurreratu” dutela azpimarratu digute Udaleko ordezkariak.

Guztira, 200.000 euro inguruko aurrekontua daukan proiektua da elizaren aldameneko gunea atonduko duena, eta Udal Gobernuak esan digunez dagoneko “itxura hartzen” doa. Hil honen amaierarako bukatuta izango dira lanak. ■ I.E.

ELORRIO

Ana Otadui, EAJren hautagai 2011ko hauteskundeetan

2011ko udal hauteskundeei begirako prozesua hasita dauka EAJk Durangaldean. Joan zen astean Durangoko eta Abadiñoko proposamenen berri eman bazuten, astean Elorrioko hautagaia nor izango den azaldu dute: Ana Otadui. Gaur egun zinegotzi kargua dauka Otadui, eta legebiltzarrean ere lanean dihardu joan zen urtetik. “Hauteskunde batzordea urritik dabil lanean, eta berak proposatu du nire izena”, azaldu digu Otadui. Dena dela, Elorrioko Uri Buru Batzarrak hartuko du azkeneko erabakia, martxoaren 16an burutuko den asanbladan. Alkatetza eskuratzeko helburuz, lanerako gogotsu azaldu da hautagai jeltzalea.

DURANGALDEA

Oskar Oviedo aske geratu da, lau urte eta erdiren ondoren

Lau urte eta erdi eman ditu espetxean Iurretako gazteak, eta astelehen honetan geratu zen libre. Orain ia bost urte—2005ko irailean— atxilotu zuen Oskar Oviedo Polizia Nazionalak, lau urte eta erdiko zigorra betetzeko. Kale borrokan aritu izana egotzi zion epaileak orduan egindako epaiketan.

Espetxealdia kartzela bitan igaro du. Hain zuzen ere, Basauriko eta Palentziako kartzeletan egon da urteotan iurretarra. Astelehen arratsaldean harrera egin zioten Iurretan lehenengo, eta Elorrioren ondoren.

AHTaren eraikuntzan zerikusia duten enpresetan protestan

AHT Gelditu Elkarlanak protesta saioak egingo ditu gaur eskualdean, AHTaren eraikuntzan parte hartzen duten “enpresa txikitzaileen” aurrean. Gaur, 18:30ean, Zornotzan autopistako ordainleku zaharra zegoen biribilgunean batuko dira, Cycasa enpresaren aurrean. 19:00etan, berriz, Durangoko Ezkurdiko tren geltokian batuko dira, Eusko Trenbide Sareak-en aurrean protesta egiteko. Astelehenean ere, jende talde batek ekintza “informatibo-salatzailea” burutu zuen Durangaldeko INEMek Iurretan daukan bulegotan, eta eskuorriak banatu zituzten.



ZALDIBAR

Gaztetxeak sei urte egin ditu

Hainbat ekitaldi antolatu ditu Zaldibarko Gazte Asanbladak Gaztetxearen seigarren urteurrena ospatzeko. Gaur, 16:30ean, umeentzako jolasak eta txokolatada egingo dituzte, eta 22:30ean Berrizko Zain eta Billabonako Lain taldeek kontzertua eskainiko dute. Aurreratu dutenez, Zaldibarko talde sorpresa batek ere parte hartuko du kontzertuetan. Bihar—Gaztetxearen urteurrenean— 14:00etan aureskua dantzatuko diote Gaztetxeari eta, ondoren, herri-bazkaria egingo dute. Bazkal ostean, 16:00ak inguruan, *Mis Ovarios 33* antzerki musikala eskainiko dute. 18:00etan poteo girotua egingo dute, Gaztetxean hasita. Azkenik, 22:30etik aurrera rock kontzertua ere izango da, Ze Esatek! eta Tribute to RIP taldeen eskutik.



anboto, durangaldeko asteakaria

Egin zaitez harpidedun



harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo anboto@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali

“Baliteke Otxandio Erdi Aroko Otxando izenetik etortzea”

Herriko leku-izenak batzen dituen ‘Otxandioko Toponimia’ liburua aurkeztu berri du Asier Astigarragak

Otxandioko leku izenak edo toponimoak aztertzen ibili da Asier Astigarraga filologoa. ‘Otxandioko Toponimia’ liburuan batu ditu bere ikerketan topatutakoak. Lekuen izenen jatorriaz gainera, leku horien historiaz ere asko ikasi du bere ikerketa lanean.

Zelan sortu zen ikerketa proiektua?

Orain dela hamar urte, Otxandioko Mirugain elkartea bere kabuz hasi zen toponimia aztertzen. Otxandioko eta inguruetako leku izenak batzen hasi ziren, galtzear zeudelako eta asko aldatu zirelako belau-naldi batetik bestera. Ikaragarriko ikerketa lana egin zuten, eta euren asmoa lana argitaratzea zen, baina, Euskaltzaindiak esan zuen aurre ikerketa bat egin behar zela, gauzak normalizatzeko. Udalak eta Eusko Ikaskuntzak deitu zuten beka geroago, duela bost urte. Mirugainen lana orraztea eta horretarako dokumentazio historikoa berreskuratzea izan da nire lana.

Zelan izan da ikerketa prozesua?

Udalan bertan egon den dokumentazioa jo dut, eta baita Batzar Nagusietara, Foru Aldundira... Kultura Ministerioko artxibo probintzian ere arakatu dut. Informazio interesgarria Durangoko eta Gasteizko jabego erregistroetan topatu dut. XIX. mendearen amaierako datuak zeuden, eta garai horretan toponimia arloan aldatetak eta fijasio batzuk egon ziren.

Dokumentuotatik gaurko erabilerara asko aldatu dira leku izenak?

Bai. Apur bat atzerantz joanda izugarrizko aldaketak ikusi genitzake. Esate baterako, kale bat dago Basogai izenez ezagutzen dena. Baso baten eta gain baten inguruko zer edo zer esan nahi duela ematen du. Idatzietan, 1960ko hamarkada bueltan, Basobai terminoa agertzen da, eta XX. mendearen hasieran Basoebagi agertzen da, eta erderazko “motecalvo”ren berdina da. Lehen baso bat egon zen, eta ebaki egin zuten. Datu horiek edukita oso erraza da toponimo horren azalpen historikoa ematea, baina datu barik oso arriskutsua da. Jendeari asko gustatzen zaio berben jatorria jakitea, eta horretan dokumentu zaharrek asko laguntzen dute.

Arautzeko orduan nork irabazten du, erabiltzen den berbak ala jatorrizkoak? Ez da erraza. Erabakiak hartu behar izaten dira banan-banan, aztertuta zein izan den lehenengo forma, bitar-



Juanra de la Cruz

“Basogai kalea ‘Basoebagi’-tik dator, XX. mende hasierako testuek diotenez”

tekoa, orain erabiltzen dena... Euskaltzaindian bertan, onomastikako batzordean erabakiak bana-banan hartzen dituzte. Nahiko kontu iskanbilatsua da. Fisika kuantikoa, adibidez, ez dugu erabiltzen eguneroko berbetan, baina hizkuntza bai. Gure herria ondo ezagutzen dugu, eta pentsatzen dugu berbak horrela direla eta horrela esaten direla. Hori ondo dago, gure herriko altxorra gure egiten dugulako. Hainbat uste daude,

“Leku izenetan gizakien hartu-emanak eta mundua ikusteko modua ageri dira”

batzuetan okerrak. Lan honen funtzioa hori ere bada; ni ez naiz inor esateko zelan esan behar diren gauzak. Izen horien inguruko datuak eman ditzaket, iturri historikoak kontutan hartuta.

Herriaren izenen jatorrien inguruko teoria asko daude, beraz.

Bai, gure herriaren izenagaz beragaz ere bai. Herria fundatu zeneko dokumentaziorik, tamalez, ez dago.

Asier Astigarraga • Euskal filologoa

- 44 urte dauzka
- Arrasateko Arizmendi ikastolako irakaslea da

“Otso handitik” datorrela uste izaten du jendeak, eta XIX. mendeko historialariek ere hori esaten zuten. Alde filologikoari begiratuta, Zeberriogaz alderatu genezake Otxandio, forman parekotasuna daukatelako. Zeberrioko iturrietan ikusi dugu Seberiano dagoela atzean, eta horren atzean Sebero izena dago. Otxandion badugu Otxandiano forma, (“-ano” hori euskaldun-euskalduna da) eta Otxando Erdi Aroko izenetik etorri daiteke. Otso berba ere badauka izen horrek, eta latinez Lupus da. Gaztelarazko Lopezen parekoa izango litzateke Otxando. Beraz, teoria filologikoez diotenez, jatorria otso hitza daukan Otxandiotik dator.

Aita Otxandiokoa duzu, eta zu duela bost urtetik bizi zara bertan. Herria hobeto ezagutzen langundu dizu lan honek?

Bai, asko. Horrelako lanagaz errealtatea hobeto ezagutu dut, baina ez lehenagoko errealtatea bakarrik, oraingoa ere bai. Otxandio Durangotik Gasteizerako bidean jarri zen. Bere nortasuna hori izan da, garraio asko pasatu da hortik, eta gerra asko eta gorabehera asko pasatu izan dira bertan. Bizkaitar askorentzako da azkeneko mugarrria, baina bide ere izan da, eta horregatik, burdingintzaren inguruko giro ekonomiko handia sortu da; olak, errementariak, kateagintza... asko ikasi dut.

Zergatik dira garrantzitsuak toponimien inguruko ikerketak?

Leku izenetan gizakien arteko hartu-emanak, mundua ikusteko modua... zelakoak izan diren ageri zaigu. Horregatik lan hauek helburu pedagogikoagaz egitea oso garrantzitsua da; ondare hau transmititu egin behar da. ■ A.U.

EKONOMIA[>]

> DURANGO

Durangoko 27 saltokik parte hartuko dute martxoaren 5etik 7ra bitartean 5. Aukera Azokan. Aurten, gainera, lehena hasiko da; barikuan eguerdiko 12:00etan zabalduko dituzte ateak. Erakustazokan 27 stand egongo dira –iaz baino hiru gehiago– eta tokiak ez duela gehiagorako ematen aipatu dute +Dendako ordezkariak prentsurrekoan. Era berean, umeei zuzendutako hainbat ekintza antolatu dituzte; pailazoak, txokolatada, jolas lekua eta, berrikuntza moduan, poneya, domekan 11:30ean. Santiago Reyes +Dendakeko gerenteak aipatu du:

Erosleen artean opariak zozkatuko dituzte eta parkina bi orduz dohainik izango da

nez, ekintza hauekin azokan “familia osoa” egon daiteke, “jendeak salgaien kalitate, prezio merke eta giroa estimatzen du”. Azokako bezeroen artean hainbat oparizozketatuko dituzte; hala nola, asteburua bainuetxe batean, ardo botilak... Parkina bi orduz dohainik izango dute erosleek.

Azokako giroa herrira ere zabaldu gura dutela aipatu du Guillermo Oarbeaskoa +Dendako zuzendariak, “erosketa ludikoa izan behar da”. ■ G.A.

Aukera Azokan Durangoko 27 saltoki ipiniko dituzte

Azokaz gainera, umeentzako hainbat ekintza antolatu dituzte, “familia guztia bertan egon ahal izateko”, eta Azokako giroa Durangora zabaldu gura dute.



Landako Gunean egingo den 5. Aukera Azokaren berri eman zuten +Dendak-ek.

Fundifeseko langileek berriro eskatu dute lurrak berkalifikatzea

EAJk lurren berkalifikazioa “bideragarri” ikusten du, baina ez beharginek eskatzen duten eremua

Fundifeseko langileek enpresako lurrak berkalifikatzea eskatu zuten egueneko udalbatzarrean, eta Jesus Mari Vicentek, langileen ordezkari legez, alkateari “hartutako konpromisoak ez betetzea” leporatu zion. Izan ere, Vicente-

Talde Mistoak: “Udalak ikerketa egin beharko luke, eta gero zer egin erabaki”

ren esanetan, “sindikatu batek Udalari jakinarazi zion lur zatia berkalifikatzeko baldintza guztiak ematen zirela”, eta “harrezkero hile bi joan dira”. Egoerak hainbat familiarengan duen eragina ere gogoratu zuen.

Joan zen barikuan, Durangoko EAJk Batzokian emandako prentsurrekoan “errefusatu” egin zuen plenoan langileen bozerramaileak izan zuen jokabidea. EAJk “bideragarri ikusten du lurren berkalifikazioa egitea”, baina ez langileek eskatzen duten eremua, izan ere, “Tabirako eraikitze-dentsitatea baino hiru bider gehiago eskatzen dute”. Aitziber Irigoras Durangoko alkateak azaldu du:

nez, “jabetzen” dira langileen egoz; “irtenbideak topatzen saiatuko gara”, dio.

Talde Mistoak adierazi duenez, “Durangoko Udalak ikerketa bat egin beharko luke Tabirako zonaldearentzat onuragarriena zer den jakiteko, orduan, lur horiekin zer egin erabakitzeko”. Talde Mistoak hainbat galdera ere planteatu ditu Fundifesen inguruan azken urteetan gertatutakoa dela eta: “Zergatik ez zaie erantzukizunik eskatzen urteetan enpresaren gestioan lan egin dutenei? Zergatik ez zen gaur egungo presio bera egin proiektu industrialik gabe Fundifes hiltzen utzi zutenen aurrean?” ■ G.A.

kolaborazioa



Javier Meruelo
CNT sindikatua

67 urteak ez dira ezer ere

Dirudienez, UGT eta CCOO lehenengoz jarri dira Zapateroren gobernuaren kontra. Pasa den otsaileko manifestazioaren eskaera nagusia Ez 67ko jubilarioari zen. Gobernuak 67 urteko erretiroaren zurrumurruarekin beldurra eman nahi digu, erreforma berri bat ezartzeko, eta betiko moduan langileok izango gara gehiago galduko dugunak.

Komiki batean, binetan agertzen dira enpresari bat eta bere aurrean langile bat. Enpresariak esaten du: “Urte honetan krisiagatik ez dugu mozkinik edukiko, soldatarekin konformatu beharko dugu”. Eta jarraian langileak, etsituta, dio: “Imajinatu soldata bakarrik dugunok...”.

Bi “sindikatu” hauen gorkarguak, euren objektiboa lortzen badute, iraultza bat izango bailitz salduko digute. Kontu honek barrera psikologiko baten funtzioa dauka, atentzioa bestelako gauzetara desbideratuz; ez inportantzia gutxi daukadalako, beste gauza askoz garrantzitsuagoak daudelako baizik. Adibide batzuk jartzeko, etxebizitzaren prezioak, zaborlanak, etab.

Vicenç Navarro, gizarte eta politika zientzietan katedradunak, argi eta garbi esplikatzen ditu botereengatik pentsioei buruz behin eta berriz etortzen diren gezur hutsak. Bere iritziz, produktibitatea handitzen duenez, 2060 urtean estatu espainolean urtean BPG 1,5% gehitzen bada (datu fidagarriak), gaur egungoa baino 2,23 aldiz handiagoa izango da, eta pentsioen gehikuntzaren gainetik jarriko litzateke.

Beste gezur bat. Gaur egungo hiritarra ez da lau urte gehiago bizi, orain dela 25 urtekoa baino; gertatzen dena da gaur egun umeen heriotza tasa asko jaitsi dela.

Banco de España, Europako Alderdi Popularra, Europako Komisioa eta BBVA euren zirkummediatikoa bultzatzen ari dira hiritarrak ikaratzeko, euren interesak borondate orokorrez mozorrotuz. Baina badakigu nortzuk diren eta zer nahi duten: mass media funtzio ideologikoa bultzatu eta jendea desinformatu, aske ez erabakitzeko.

Karl Popper zientzialariaren hitzetan, “botere politikoen historia nazioarteko delitugintza historia (...) da”.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

MINKENDU
MASAJEA, AKUPUNTURA
(orratz gabe ere) ETA
MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • HIDROLINFA

Alberto Murua
Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO
tf. 662 270 770

KULTURA>



MUSIKA > EMANALDIA

Erroak folk zeltiarrean dituzten Bizardunak

Dubliners talde irlandarrek eta kubako Sierra Maestrako bizardunak dituztela maite aldarrikatzen duten Bizardunak taldeko musikari nafarrak izango dira martxoaren 12an Durangoko Plateruean kontzertua eskaintzen.

Irlandako doinu zeltak gogora ekartzen dituzten kantak sortzen dituzte Bizardunak taldeko nafarrek, eta egiten dutena "folk radical vasco" dela azaltzen dute.

Erro zeltiarrak dauzkan musika egiten dute folk mota horretan tradizionalak diren instrumentuekin, eta The Dubliners eta The Pogues talde irlandarrek egiten dutena omen da euren egiteko moduaren eredu nagusietakoa.

Tradizio zeltiarrean oinarritutako doinuak eta ironia eta kritikaz betetako berbak uztartzen dituzte Bizardunak. Taldekideek eurek azaltzen dutenez, Irlandako doinu tradizionalak eta 80ko hamarkadako euskal taldeen letra "zuzen eta politizatua" uztartzea dute gustuko. *Nazi de fresa* kantareneko letra zati hauxe hitzen ironiaren erakusle: "*Defendatuko ditut nire arbasoen ideiak botila beteta dagoen bitartean*". "Nafar harrotasuna eta festa" dituzte kanta askotako gai nagusi.

Euren kontzertuak "jai kolektibo, mitin politiko edo mozkorraldi konpartitu" izaten direla esaten dute folk zein rock taldeetan jardun duten musikariek. ■ I.E.

Euren kontzertuak "jai kolektibo" bilakatzen dituzte bizardun nafarrek

12 'La Muerte y la doncella'

Datorren barikuan Elorrioko Arriolan eta martxoaren 14an Durangon izango da justizia eta barkamena, memoria eta ahanztura gai dituen antzezlan.



13

'Harrobian indusi' diskoa

Arratia eta Durangaldeko musikariak batzen dituen Harrobia taldeak kaleratu duen bigarren diskoa da 'Harrobian indusi'. Taldekide bigaz egon gara.

ANTZERKIA > EMANALDIA

Torturatu zuen gizona bahitu duen emakumearen istorioa

Elorrion eta Durangon izango dugu 'La muerte y la doncella' ikusgai; martxoaren 12an Arriolan eta 14an San Agustinen dira hitzorduak



Ariel Dorfman idazle argentinarrak 90eko hamarkadan idatzitako gidoia du Saga ekoiztetxearen *La Muerte y la doncella* antzezlanak oinarri. Pinocheten diktaduraren osteko trantsizio garaian idatzi zuen Dorfmanek martxoaren 12an Elorrioko Arriolan eta 14an Durangoko San Agustinen ikusgai izango dugun *La muerte y la doncella*.

Dorfmanen testuan oinarritutako hauxe da munduan zehar gehien antzeztu den Hegoameriketako sortutako antzezlan, eta entzuleen eta kritikaren goraipamena jaso izan du, gainera, beti.

Iazko urtarriletik Eduardo Acostaren zuzendaritzapean antzezlanean aktore, Espainiako zinema eta antzerkian oso aurpe-

90eko hamarkadan, Txilen trantsizio garaia bizi zutenean idatzia

Bere ideiangatik iraindua eta torturatua den neskaren istorioa

gi ezagunak diren Emilio Gutierrez Caba, Luisa Martin eta Jose Saiz dabilta. Gutierrez Caba, Martin eta Saizek antzeztzen dituzten hiru pertsonaiengan gorpuztuta ikusiko dugu antzezlanean kontatzen den istorio gogorra.

Paulina Salas da antzezlaren protagonista, eta Luisa Martin aktore ezaguna da hogeitau urte lehenago, unibertsitateko ikasle garaian torturatu zuen gizona bahitzen duen emakume txiletarrarena egiten duena.

"Botere absolutu eta irrazionalaren jabe sentitzen denean gizakia egiteko gai den -historian hainbestetan bezala gaur egun ere egiten dituen- gehiegikerien salaketa" da *La muerte y la doncella* antzezlanean.

GEURE DURANGALDEA



Miren Amuriza Bertsolaria

Artistak

Nik ez dakit askorik arteaz. Umetan egiten ikasi genduen koadrorik konplikatuen teilatu gorridun etxetxo bat zen; tximiniatik kea, albo bakoitzean arbola bana eta loreak, hiru tontorreko mendiak, hauen tartetik kukuka zetorren eguzkia eta, agian, lainoren bat edo beste. Kitto; hortxe amaitzen zan askoren artista sena.

Baina horrek ez dau esan gura besteek egindakoaz iritzirik emon ezin geinkeenik, ezta? Esate baterako, Dalik emakumezko baten gorputz deformatua irudikatzen dauenean *El gran masturbador* izenagaz, atzerakada eragiten deust niri behintzat. Batzuentzako surrealista izango da, besteentzako abangoardista... '-ista' gehiegi gauza onerako.

Orain imajinatu daigun beste emakumezko baten bular biluzia; zintzurretik gerrirainoko zutabe batek erdi-bitua, besoetatik ezpainetara iltzez josirik. Imajinatu Fridaren begiei darien sufrimendua eta Daliren koadroaren aurrean jarriko leuken aurpegia.

Milaka irudi eta kolore ezbardin aitatu daitezke, ehunka izen. Makina bat dira, ordea, urrezko sinadura eduki ez arren, ezelako errekonozimendu barik egunero-egunero sorkuntza lanean dihardueenak: kale kantoian akordeoia jotzen dauen bulgariarra, tren geltokiko mimoa, graffitiak egiten gauez ateratzen diren gazteak, amonaren urtebetetzerako etxetxo marraztu dauen mutikoa...

Lehen ere esan dot arteaz ez dakidala askorik, baina zuek bai zuek artistak!

Hegoameriketako ekoizti eta munduan zehar gehien antzeztua

Arrazoia eta zorramena, zalantza eta ziurtasuna, memoria eta ahaztura, etab. dira antzezlanean agertzen diren beste elementu ez hain ageriko baina ikuslea gogoe-tara bultzatzen dutenak. ■ I.E.

BERTSOLARITZA > LEHIAKETAK

Eguazten honetan hasi eta martxoaren 26ra arte jokatu dute Bizkaiko eskualdeetako bertsolari gazteen BBK sariketa. Arratia, Bilboaldea, Busturialdea, Durangaldea, Ipar Uribe, Lea-Artibai eta Enkarterriak eskualdeetako taldeetan jardungo dute 50 bertsolari gaztek. Eguazten honetan Igozren hasi den lehiaketak martxoaren 9an izango du Durangon saioa: Institutuko aretoan dute Durangaldea eta Bilboaldeko bertsolari gazteek kanporaketa.

50 bertsolari gaztek jardungo dute asteon hasi den BBK sariketan

Asteon eman dute jakitera, bestalde, Durangaldeko Bertsolari Txapelketaren aurreaioak noiz eta non izango diren ere: apirilaren 23an Mallabiko Izar Gorri elkartearen jardungo dute, 21:00etatik aurrera, Durangaldeko sei bertsolarik lehenengo aurreaioan:

Gorka Lazkano eta Miren Amuriza berriztarrek, Garikoitz Sarriurgarte zaldibartarrak, Unai Ormaetxea zornotzarrak, Beñat Ugarteetxea mallabitarrak eta Julen Sololuze ermuarrak jardungo dute, afaostean, Izar Gorri elkartearen ahal duten paperik onena egiten.

Apirilaren 30ean Iurretako Oromiño auzoko txokotan izango da Durangaldeko 2010eko Bertsolari Txapelketaren bigarren aurreaioa; Ander Aldazabal eta Jon Ander Urkiaga zornotzarrak, Eneko Abasolo "Abarkas" iurretarra, Ander Salaberria durangarra, Eñaut Uruburu abadiñarra, eta Mallabiko irabazlea arituko dira.

Udazkenean hasiko den Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkatzeko baliagarri izango dira Mallabia eta Iurretako Oromiño auzoko saioetako jardunok. ■ I.E.

Asteon eman dute Durangaldeko Bertsolari Txapelketaren berri

Bertsolari gazteena lehenengo eta eskualdeko txapelketa gero

Martxoaren 9an da Durangaldeko eta Bilboaldeko bertsolari gazteen lehia



Garaiko frontoian izan zen 2008ko Durangaldeko txapelketaren finala. J.Fernandez

MUSIKA > ELKARRIZKETA

Zer moduz joan zen barikuko Matienako kontzertua?

Ondo. Oso ondo joan zen. Pozik gaude, jende nahikoa baina, batez ere, giro polita egon zelako. Ondo atera zen, baina azkenean tabernakoari zaratagatik kexatuz deitu zioten, eta baime-na eskatuta zegoen arren, 23:30 inguruan amaitu behar izan genuen kontzertua.

Diskoa aurkezteko kontzertuak eskaini gura dituzue.

Abenduan diskoa aurkeztu genuenetik lau kontzertu eskaini ditugu areto txikietan, eta gaur Zarauzko malekoian dagoen Marea Gora tabernan, eta martxoaren 12an Lemoako Gaztetxean ditugu hurrengo zuzenekoetarako hitzorduak.

“Zarautzen gaur eta Lemoako Gaztetxean martxoaren 12an ditugu kontzertuak”

Tabernetan eta areto txikietan jotzea duzue gustuko, ezta?

Bai, egia esanda, gusturen horrelakoetan egoten gara. Areto nagusi bat edo jaietako kontzertu handi bat ezin dugu guk bete: iaz, esaterako, Ibilaldian jo genuen, jende asko egon zen, baina giroa nahiko hotza izan zen; kontzertura ez beste gauza batzuetara zegoen jende gehiena. Aurtengo kontzertuekin, alde horretatik, oso pozik gaude; jendea egoten da eta, gainera, kontzertuan sartuta egoten dira, eta giro polita hortik sortzen da.

Zelan izan zen Arratiako eta Durangaldeko bost musikarion elkartzea?

Iñakik eta Raulek gitarra irakasle bera –disko honetan abesti batean geugaz kolaboratu duen Carlos Velasco jazz musikaria– izan zutelana eta topatu genuen Raul lehenengo: gitarrista bila genbiltzan Iñaki eta ni, eta Velasco esan zigun Raul izan zitekeela hautagai ona. Hori 2006ko azkenetan izan zen, eta 2007tik gaur egungo boskotea gabiltza.

Zelakoa izan da bigarren diskoaren grabazioa?

Geuk ordainduta egin dugu grabazioa, gastatu genezakeenaren arabera. Bideoak ere egin ditugu. Lehenengo diskoagaz ere planteamendua antzekoa izan zen. Teorian, gero, diskoa grabatzeko inbertitutako dirua zuzenekoegaz amortizatzen duzu... jotzeko aukera badaukazu behintzat! Talde ezagunek diskoa grabatzen gatazten dituzten 20.000 euroak kontzertu bakoitza 9.000 euroan kobratuta irabazten dute. Alde horretatik bigarren edo hirugarren dibisioan gaude.

Non topatu genezake diskoa?

Elkar argitaletxearen dendetan, eta Durangon Arteka liburudendan badaude salgai.

Rock and roll klasikoaren Arratiako eta Durangaldeko harginak: Harrobi

Antonio Cantero abadiñarra, Raul Gomez durangarra, eta Iñaki Akesolo, Josu Etxabarría eta Dabid Ibarra arratiarrak dira 2006tik Harrobi taldea osatzen duten bost lagunak. Arratiarrak lehenago The Impresentables taldean jardundakoak dira (16 urte daramatzate Dabid eta Iñakik elkarregaz jotzen), baina **Harrobi** taldea Durangaldea eta Arratiaren arteko loturaren ondorio da. Taldearen bigarren fasearen parte da barikuan Matienako Vancouver tabernan aurkeztu zuten ‘Harrobian indusi’ diskoa.



“60ko eta 70eko hamarkadetako rock and roll klasikoaren eragina dute kantek”

“Gitarrista bila ibili ginen 2006an, eta horrela ezagutu genuen Raul”

“Bizitzan eta errealitatean oinarritzen diren letrak egiten ditugu”

Zeri buruzkoak dira letrak?

Bizitzan eta errealitatean oinarrituta, askotariko gaietarako buruzkoak dira letrak: trasplantatu baten istorioa, maitasunari eta maitasun ezari buruzkoak, eta enpresa-gizon bati kritika egiten diona daude disko honetan, besteak beste.

Zelan azalduko zenukete zelan den zuen musika?

Gurearen antzeko rock and roll askorik ez da egiten Euskal Herrian, izan ere, hemengo influentziak gehiago izan dira 70eko hamarkadako azken urteetako punkarenak: Sex Pis-

tols lako taldeena. Guk egiten duguna hori baino lehenagoko doinuen eraginpean sortutakoa da: Rolling Stones edo The Who taldeak ditugu influentzia nagusi: 60ko eta 70eko hamarkadetako rock and roll klasikoak; gure kasuan, euskaraz. ■ I.E.

“Beheraldiak izan ditugun arren, beti ateratzen dugu jarraitzeko indarra”

Kontzertuetarako hitzorduak lortzea gaitza da gaur egun?

Lehenago baino gaitzagoa bai: The Impresentablesen sasoian, Durangon, Txori-zoron, Guay tabernan edo Karretoan jotakoak gara. Beste garai bat zen; jendea gehiago joaten zen kontzertuetara, eta taberna askotan zegoen jotzeko aukera. Lehenago aukeran izaten genituen lekuetan debekatu egin dute jotzea orain, edo arazoak daude auzotarren kexak direla eta.

Musikan 16 daramatzazue, eta zailtasunak zailtasun, hor jarraitzen duzue. Zerk bultzatzen zaituzte segitzera?

Iñakik eta biok urte asko daramatzagu musika egiten, eta beheraldiak izan ditugun arren

ez dagoen lekutik ilusioa atera eta bueltatu egiten gara beti. Gaitz dago, baina; kontzertuak norberak lotu, diskoak saldu, eta musikaz gainera bakoitzak bere ogibidea ere badauka...

Zelako musika mugimendua dago Arratian?

Azken bost-sei urteetan geu izan gara Dimako musika talde bakarra, baina beste talde bi ere badabiltza orain: MG eta Jaik.



DOKUMENTALA > EMANALDIA

Martxoaren 11rako ipini dute hurrengo Hilean Behin dokumental emanaldiaren hitzordua: *Cooking History* izeneko dokumentala eskainiko dute Elorrioko Iturri kultur etxean, 19:30ean hasita.

Sukaldari militarrei buruzko istorioa da. Filmaren laburpenean jasotzen denez, XX. mendeko Europako gerretan borrokatutako hainbat ejertzitotan jardundako sukaldariei buruzko kontakizuna da Eslovakiar Errepublikan jaiotako Peter Kerekes zuzendariak 2009an ekoiztutako 88 minutuko iraupena duen hau.

Sei gerra, hamaika errezeta
Ejertzitoetan diharduten sukaldarien ikuspuntutik kontatzen ditu filmak gerrak. Sei gerra, hamaika errezeta eta 60 milioi hildako baino gehiago dira *Cooking History* dokumentalaren historia kontatzeko baliatzen duen modu honetan protagonista.

Estatuen garaipen eta galere-tan, eguneroko janari beharrak zelan eragin duen erakusten du martxoan eskaintzeko hautatu duten filmak: janariaren prestakuntza gerrarako estrategia zelan bilakatu daitekeen. Bigarren Mundu Gerra eta Txetxeniako gerran kokatzen da, besteak beste.

'Cooking History': Iturri kultur etxeko martxoko Hilean Behingo dokumentala

Martxoaren 11n, 19:30ean, Elorrioko kultur etxean da Hilean Behin programako filmaren emanaldia

Sukaldeak eta gerrak antz handia dutela eta janaria prestatzea gerraren metafora dela erakusten du lanak: denbora da, zuzendariak dionez, sukaldean eta gerran osagai nagusi. ■ I.E.

Sei gerra, hamaika errezeta eta 60 milioi hildako protagonista

Gerran zein sukaldean denbora dela osagai nagusia dio Kerekesek

2009an ekoiztutako 88 minutuko iraupena duen dokumentala



ANTZERKIA > IKASTAROA

Banarte antzerki taldeak ikastaro trinkoa antolatu du Lipusekin

Antzerkiola Imajinarioa taldean landutako teknika eta metodologiak oinarri dituen ikastaroa da Banartek antolatu eta Ander Lipusek gidatuko duena

Ikastaroan parte hartzen dutenei entrenamendu fisikoa eta ahots lanketa eskaintzea da martxoaren 13an Banarte antzerki taldearen Muntzaratz auzoko lekuan egingo duten ikastaroaren helburua. Antzerkiaren teoria eta praktika landuko dituzte Ander Lipus aktore markinarrak gidatutako saioan.

Teoriari dagokionez, antolatzailerek nabarmentzen dutenez, 'noh' antzerkiari eta 'tadeusz Kantor' teknikari buruzko ikus-entzuzko dokumentazioa eskainiko dute, besteak beste, ikastaroan. Antzerki antropologiara ere ger-

Martxoaren 13an, goiz eta arratsaldean dira saioak Muntzaratzen

Antzerkiaren teknika eta estetikari buruzko teoria eta praktika

turatuko ditu izena ematen dutenak Ander Lipusek. Antzerki teknika eta estetika berriak ikasteko bestalde, joko eta inprobisazioa landuko dituzte.

Gutxienez hamar eta gehienez hamabost laguneko taldeetan, bakarkako lana eta kolektiboa uztartuko dituzte ikastaroan parte hartzen dutenek.

Martxoaren 13an, goiz eta arratsaldean (10:00etan hasi eta 14:00ak arte, eta 16:00etatik 20:00ak arte) izango da hitzordua. Informazio gehiagorako helbidea: banarte@gmail.com. ■ I.E.



Lipus 'Putzuak lehortzen' antzezlanean, iaz. J.Fernandez

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

OTSAILAK 5 22:00etan
CHRISTINA ROSENVINGE + TULSA
HEINEKEN MUSIC SELECTOR
KONTZERTUA. Sarrera: 12, 10 / 15 euro.

OTSAILAK 12 22:00etan
BIZARDUNAK +
LES FABULOSERS
KONTZERTUA. Sarrera: 8-10 euro.

OTSAILAK 13 19:00etan
DANTZALDI IBILTARIA
ERROMERIA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

LA MUERTE Y LA DONCELLA
de Ariel Dorfman

www.lamuerteyladoncella.com

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Martxoak 14 • 19:00etan

HITZ

Liburudenda

11-59 600 07 76 Artekale, 14 Durango

Gremioen gida



Iturgintza

Klimatizazioa
Kalefakzioa
Iturgintza
Gasa

ARRANDI ITURGINTZA

Arrandi, 16 - behea, 3. area
Sakelakoa: 907 24 58 54
Faxa: 94 681 61 58
lurra

Baimendun
Instalazioak

Elektronika

URBASA Elektronika

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SORBUA - BIDEUA - IRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAS

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic

Televis
Instalazioak eta
Okinak

Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Argiztapena

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

Arotzeria

EGUIA S.L.

AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

fabrika kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

Ardatz

grebioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Lorazaintza

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Eraikuntza

arlax

Baserriak eta etxebizitzak
berrizatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Barrualdea diseinatzea

Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antea Estegiz etorb. 11 - 3 B DURANGO Sakelakoa: 615 77 91 70
605 77 03 57

Ubide iturgintza

188 PK
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza

Pintura

Ibai Urien Madrazo
Pintura
apaingarria
eta industrialia

Pinturas Sagasta

Sagasta auzoa
Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO
Bizkaia
Tel.: 629 143 944

• Fazio eta proiektu berria
• Inprimaketa, berriztatze
• Ezaugarriak berri eta berriak
• Inprimak, berriztatze, abarmentak
• Aurrekontuak, konpromiso gabe

Garbiketak

AZKARGI
GARBIKETAK

Bizitegi eta komunitate mantentzeak
• Berriztatze garbiketak
• Berriztatze eta aldatzeak

Goleta, 46 - 2 esk - Elorrio - 615 79 12 15

Informatika

elaia IT

Information Technology S.L.

ZURE SISTEMA INFORMATIKOA
EZ DA UMEEN JOLASA

- TIC aholkularitza
- Ekipoen eta hornikuntza (kontumigariak)
- Konfigurazioa eta instalazioa
- Mantentzeak
- Formazioa
- LOPD/LESI adaptazioa

www.elaia.es • e-mail: info@elaia.es
Tel.: 94 640 98 98

Txapelketa Nagusia berbagai DF bertsozale eskolan



Milaka bertsozale batu ziren Barakaldoko BECen, 2009ko Txapelketa Nagusiko finalean. Asier Arroita

Bertsozaleen ikasgela izango da aurten ere Plateruena kafe antzokia. Atzo hasi zen DF bertsozale eskolaren bigarren edizioa, Andoni Egañaren berbaldiagaz. 2009ko Txapelketa Nagusia aukeratu dute azterketarako gai legeaz, eta hainbat gonbidatu izango dituzte hausnarketarako prest.

Dibulgazio saioak eskaintzea da antolatzaileen asmoa

Bertsozaleek Plateruenean daukate hitzordu berria, DF bertsozale eskolan. Martxoan zehar garatuko den ikastaro hau bertso edo bertsolari eskola baino, bertsozaleen topaleku izango da. Izan ere, bertsoaz gehiago jakin edo gozatu gura duen edonori zuzenduta dago ekimena. Bertsogintzari buruzko dibulgazio saioak eskaintzea da antolatzaileen asmoa.

Joan zen urteko udaberrian sortu zuten eskola berezi hau; hobeto esanda, eskolaren lehenengo zikloa landu zuten. Bateko bertsozaleek, bertso idatziez, bertsolariaren historiari, gai-jartzaileak... gai askoren bueltan jardun zuten Igor Elortza, Unai Iturriaga, Josu Goikoetxea, Xabier Amuriza eta

Maialen Lujanbioren partaidezagaz. Egitasmoak eduki zuen arrakasta ikusita, aurten bigarren edizioa martxoan ipintzea erabaki dute.

Hainbat gonbidatu

Aurten gai zentral bat izango dute eskoletarako: Txapelketa Nagusia. Antolatzaileek argitu dutenez, "iazko DFkideek hala erabakita, 2009ko txapelketari erreparoa" emango diote Plateruenean. Dena dela, gaia bakarra izan arren, hainbat alor landuko dira gonbidatuen eskutik. Atzo Andoni Egañak zabaldu zuen berbaldi zikloa, bizi izan dituen txapelketetan oinarrituta bertsozaleen bilakaera aztertuz. 1986tik 2009ra,

zarauztarra zazpi bider izan da finalista, eta lau txapel eskuratu ditu. 2009an galdu zuen "agintea", jakina denez, Maialen Lujanbiok kenduta.

Gaiak garrantzia handia izan ohi du bertsoaren sorkuntzan, eta horretan sakonduko dute Maite Berriozabal eta Unai Elizasu gai-jartzaileek datorren egunean. Txapelketako gaien analisia eginda, ikasleek funtzio hori ezagutzeko aukera ere izango dute.

Hirugarren atalean Agin Rezola eta Iñaki Aurrekoetxea izango dira irakasle. Kritikariak dira biak; lehenengoa *Garakoa* eta bigarrena *Berriakoa*. Txapelketak bertsozaleen egindako ekarpena izango dute berbagai. Azkeneko lan-saioan Eider Rodriguez idazlearen eta Asier Altuna zinegilearen txanda izango da. Bertsozaleak dira biak, eta bestelako ikuspuntua eskainiko dute bertsozaleek eta txapelketaz.

25 bertsozale inguruk gozatu dute ikastaroaz; bestalde, www.plateruena.net/bloga helbidean ere zuzenean ikusteko aukera izango da. ■ M.O.

Aurten gai zentral bat izango da lau saioetarako: Txapelketa Nagusia

Gaia bakarra izan arren, hainbat alor landuko dituzte gonbidatuekin

GEHIGARRIA[>]

anboto | 2010eko martxoaren 5a, barikua

martxoak 8

Emakumearen Nazioarteko Eguna

**TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO
LAGUNTZA JURIDIKO ETA PSIKOLOGIKORAKO
ZERBITZUA**



Mancomunidad de la Merindad
de Durango
Durangoko Merrialdearen
Amankomunazgoa

Tel.: 94 620 04 92



Berdintasuna helburu hartuta, egitarau zabala Durangaldean

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte Durangaldean. Aukera berdintasuna aldarri hartuta, berbaldi, proiektzio, antzezlan, erakusketa eta bestelako ekintza sorta prest dago.

Durango Bilgune Feministak martxoaren 6an 11:00etan jarri du hitzordua. Andra Marian mural kolektiboa margotzeko deialdia egin dute. Herria bizikleta biran zeharkatuko dute ondoren. Mundu Martxari ekarpena egiteko, muralagaz argazkia aterako dute. Bazkaritarako ere elkartuko dira, eguerdiko 14:00etan, eta 17:00etan Triki-trans-poteoa antolatuko dute. Ondoren, egitarauak Atxondoko Gaztetxean jarraipena izango du. *Emakumeak larrugorritan* antzezlan taularatuko dute eta Shok-Asalto taldeak kontzertua eskainiko du. Emakumearen Egunean manifestazioa irtengo da, 20:00etan, Andra Maritik.

Emakumeen jabeakuntza indartu guran, lurretako Anderebide elkarteak udalagaz elkarlanean berbaldi sorta antolatu du. Emakumeek dauzkaten eskubideak ezagutzera ematea eta jabeakuntza bidean aurrera egitea da berbaldi hauen helburua.

Erakusketak, antzerkia, literatura eta musika emanaldia eta Lilakrosa dira aurtengo Durangon prestatu dituzten ekintzak.

Berrizen *Añeketan* lasterketa, antzerkia, ipuin kontaketa eta tailerrak dira aurtengo egitaraurako aurreikusi dituztenak. Kontzentrazioa deitu dute martxoaren 8rako, 19:30ean, Urriaga plazan.

Durango Bilgune Feminista Durangon eta Atxondon batuko da, martxoaren 6an

Abadiñon martxoaren 8a dela eta kartel lehiaketa antolatu dute. Orrazkera afrikarrak egiteko aukera izango da martxoaren 8an Traña-Matienako plaza-kioskoan. Ondoren, Mundu Martxagaz bat egiteko murala egingo dute. Jarraian, herriko



Iban Gorriti

kaleak zeharkatuko dituen ibilaldia jai-giroan egingo dute. Zine foruma eta antzerkia ere antolatuko dituzte.

Elorri *Emakumeok mar txan berdintasunerako bidean* kontzentrazioa deia egin dute martxoaren 8an, 17:30ean, plazan. *Eramos pocos* laburmetraia proiektatuko dute. Antzerki emanaldia ere izango da. Elorri Lorek antolatuta *Cándida* filma eskainiko dute martxoaren 17an Iturrin.

Euskadiko Esnearen Ligak berbaldia eta mahai-ingurua antolatu ditu, martxoaren 6an, 11:00etan, Andragunean. Nerea Herran Muruagak, besteak bes-

Euskadiko Esnearen Ligagaz, edoskitzearen eta lan-eskubideen inguruko berbaldia

Elorri, martxoaren 8an laburmetraia proiektatuko dute Iturrin

te, *Edoskitzea eta lan-eskubideak* hartuko ditu hizpide.

Zaldibarren, Sutegi taldeak *El pico de las Viudas* antzezlan taularatuko du gaur, 14 urtetik gorakoendako, herri-ikastetxean. Afaria eta Ohiergi taldeagaz dantzaldia prestatuko dute bihar, 21:30ean Goierriko auzoetxean. Zine-foruma antolatuko dute martxoaren 8an, herri-ikastetxeko ekitaldi-aretoan, *Agua* filmagaz; gogoetarako gaia *Emakume alargunen munduari begira*. Moderatzailea Arantxa Núñez berdintasun teknikaria izango da. Egun honetan haurtzaindegi zerbitzua izango da.



Emakumeen lanak ezagutzera emanez

Berdintasunera bidean gazteen artean eragiteak daukan garrantzia aintzat hartuta, adin tarte honi zuzendutako erakusketa antolatu dute Durango Udaleko Berdintasun Sailaren bitartez. Herriko ikastetxeek ekimenean parte hartu dute.

Emakumeen biografiak ardatz hartuta, ikasleei zuzenduta erakusketa antolatu dute, asteon, San Agustin kulturguneko sarreran. Hainbat ikastetxek ekimen honeguz bat egin dute. Parte hartu duten ikastetxeak Landako, Kurutzia, Ikastola, San Antonio Santa Rita eta Nevers izan dira, eta zazpi urte arteko ikasleendako prestatu dute. Panel informatibotatik prestatu duten emakumeei buruzko informazioa-gida baten bitartez jakitera eman diete gazteei.

Berdintasun Saitetik jakitera eman dutenez, garrantzitsua da gaztetatik gizonetakoendako erreserbatuta egon den espaziotan emakume hauen lana zein izan den ezagutzera ematea, txikitatik ikasi dezaten emakumearen berdintasuna borroka bat izan dela denboran zehar. "Gaur egun, hainbat gauza egiteko daudenez, txikitatik berdintasunetik abiatu

behar direla ikastea gura genuke", zioen Goiztidi Diez zinegotzi jeltzaleak, egitarauaren aurkezpenean.

Emakume baserritarrak

Emakumearen Nazioarteko Egunaren ildotik Durango Andragunean beste erakusketa bat antolatu dute. Urkiola Lea Artibaiko Landa Ingurua elkarteak antolatutako argazki erakusketa da. "Emakumearen papera landa inguruan zein den adierazten duten irudiak dira", diote antolatzaileek. *Emakumea Durangaldean eta Lea Artibaiko landa inguruan* erakusketa astelehenean jarri zuten mar txan, eta martxoaren 12ra arte izango da ikusgai: "Erakusketako argazkiek baserri inguruan emakumeek daukaten garrantzia adierazten dute, bai etxe barruan bai kanpoan ere".

Durango hainbat ikasle emakume sonatuen biografiak ezagutu dituzte

Landa inguruko emakumei buruzko erakusketa Andragunean



martxoak 8

emakumeen nazioarteko eguna

MARTXOAREN 1etik 4ra
erakusketa gidatua
"Emakumeen biografiak"
San Agustin Kultur Gunean

MARTXOAREN 1etik 12ra
erakusketa
"Emakumea Durangaldean eta
Lea Artibaiko Landa inguruan"
Andragunean. Santa Ana plaza 1

MARTXOAK 4
literatura eta musika emanaldia
20:00
Durangoko Udal Liburutegian

MARTXOAK 7
lilakrosa
Berdintasunaren aldeko herri lasterketa
DURANGOK HAITI gogoan
(Erosi Lilakrosaren kamiseta Haitiren alde)
12:00
Ezkurdi Plazan

MARTXOAK 14
antzerkia
"La Muerte y la Doncella" (Ariel Dorfman)
19:00
San Agustin Kultur Gunean



Berdintasunaren alde antolatutako herri lasterketa, Haitira begira

Lilakroseko kamisetak euro baten truke salgai ipintzea erabaki dute aurten. Diru hori eta jendeak borondatez emandakoa Haitira bidaliko dute Durangoko Udaleko Berdintasun Sailagaz elkarlanean antolatu duten ekimenaren bitartez.



Kepa Aginako

Lila kolorez beteko dira Durangoko kaleak domekan. Lilakrosa martxoaren 7an Ezkurdi plazatik 12:00etan abiatuko da. Zapatilak jantzita, berdintasunaren aldeko aldarria kalera ateratzeko aukera izango da. Antolatuzaileek parte hartzeko dei zabaldua egina dute.

Nobedadeak

Nobedadez bete dute berdintasunaren aldeko herri-martxa. Lasterketaren amaiera, lehenengo, Santa Ana plazan kokatu dute, Andragunea bertan dagoelako. "Emakumeen topagunea sortu dugu herrian eta lasterketa bertan amaitzeari garrantzitsua deritzogu", diote antolatuzaileek.

Lilakroseko kamisetak euro batean salgai jartzea erabaki dute eta, horrez gainera, bakoitzak eman gura duen borondatezko laguntza jasoko dute. Bildutako dirua Haitira bidaliko dute. Durangoko Udaleko Gizarte Ekintza Sailagaz elkarlanean antolatutako ekimena izango da. Haitira laguntza bidaltzeko herriko elkarteek diru-bilketa kanpaina martxan jarri dute, eta Emakumearen Egu-

nean ere helburu horregaz bat egitea erabaki dute.

Jai giroan amaituko dute aurten lasterketa. Globoak eta mezuak botako dituzte ekitaldiaren amaieran. Jendea parte hartzera deitu dute arduradunek "ahal denik eta jenderik gehien batzeko".

Elkarteak

Herriko elkarteek lasterketan parte hartzen dute urtero. Edizio bakoitzean elkarrekin batzuei dagokie lasterketako testigua eramatea. Durangaldeko Ahotsak, Izar Gaztea, Uztai Taldea, Tabirako, Landako Eskolako Guraso Elkarteak, Emakumeen Rugby Taldea, Errotari, Barbaro, Txoritxu Alai, Bate-

Durangoko hamabi elkarteek txandaka eramango dute lasterketako testigua

ginez eta Jappoo dira edizio honetan testigua eramateko ardura daukatenak.

Lilakrosaren bukaeran luntxa eskainiko dute bertaratzen diren guztientzako. Lasterketan parte hartzen duten lagunek indarrak berriro ahal izango dituzte.

Azaroaren 25aren harira antolatutako kontaketa laburren eta olerkien lehiaketako bi sarituk poemak irakurriko dituzte, gaine-

ra, eta, urtero legez, Durangoko emakume batek idatzitako poemak ere entzungai izango dira ekitaldiaren amaieran.

Ibilbidea

Kamiseta lila soinean hartuta Ezkurditik irtengo dira domeka eguerdian Lilakrosean parte hartuko duten arineketa-lariak. Madalena, Landako etorbidea, Montevideo kalea eta Kurutziaga zeharkatuko dituzte. Ondoren, Alde Zaharrerako bidea hartuko du Lilakrosak. Alde Zaharrean itzuli bat

emanda, Santa Anan jarriko dute helmuga, Andragunean.

Parte-hartzea

Herri-lasterketaren bosgarren edizioa da aurten antolatutako dutena. Durangoko Lilakrosa, lehenengo, 1996an antolatu zuten. Urterik urte parte-hartzea hazten joan dela nabarmendu du Ketty Arrabal Durangoko Udaleko berdintasun teknikariak: "Jende ugari biltzen duen lasterketa da. Gazte eta heldu lasterketaren inguruan batzen dira".

Lasterketaren amaierarako poesia irakurketa antolatu dute, besteak beste

Aktore ezagunez betetako antzezlan

Emilio Gutierrez Caba, Luisa Martín eta José Sáiz aktore ezagunak taula gainean izango ditugu martxoaren 12an Elorrión eta martxoaren 14an Durangon, *La muerte y la doncella* antzezlan ematen.

Txileko trantsizioan idatzi zuen lana Ariel Dorfmanek, eta Paulina Salasaren istorioa kontatzen du. Hogei urte lehenago bera bahitu zuen gizonez bahitzen du Luisa Martinek antzeztzen duen pertsonaia protagonistak.

Lan honek torturaz eta gehiegikeriaz berba egiten du. "Testu hunkigarria bezain zirraragarria da, egia gordinaren aurre-aurrea eramango dituen", azaldu dute San Agustino arduradunek. Durangoko antzezlan San Agustinek aukera Berdintasunerako Udala Kontseiluagaz antolatu du.



Lilakroseko kamisetekin batutako dirua Haitira bidaliko dute

SANDRA HERNANDEZ: "Ordenagailua tresna bat da; eskuz egindakoa beti da pertsonalagoa"

Salamanca eta Madril en diseinu grafikoa ikasitako da Martxoaren 8a iragartzeko kartela egiteko Berrizen antolatutako lehiaketa irabazi duen Sandra Hernandez. Ordenagailuagaz eta arkatzagaz eskuz egindako lana, biak nahastu ditu 'Hodeietan blai' kartelean. Enkarguak beti "atzorako" izaten direla-eta, lan bati behar beste denbora eskaintzeko aukera ematen diotelako ditu lehiaketak gustuko: presa barik esperimentatu dezakeelako.

'Hodeietan blai' izena ipini diozu kartelari, zer esan gura izan duzu izenburu horregaz?

Sexualitatearen bitartez errealtatetik alde egiten duen neska-irudia izan daiteke ideia nagusia, baina, egia esanda, buelta asko gehiago barik sortutako ideia da.

Kartel lehiaketara aurkeztu zaren lehenengo aldia izan da?

Iaz ere aurkeztu nuen Martxoaren 8ko kartel lehiaketara lan bat, baina ordukoan ez nuen saririk irabazi. Lehenengo aldia da lehiaketa irabazten dudana.

“ Lanen hasierako irudia arkatzagaz egitea gustatzen zait ”

“ Hainbat testura erabiltzen ditut nire lanetan ”

Ohitura daukazu udaletan antolatzen dituzten kartel lehiaketetara aurkezteko?

Bai. Berrizera bueltatu nintzenetik egon diren kartel lehiaketa guztietara aurkeztu naiz; Martxoak 8 eta Berrizko jaietarako kartel lehiaketetara, eta argazki lehiaketetara ere bai.

Beste edozein enkargu egiten duzun moduan ala bestela lan-tzen dituzu lehiaketetarako lanak?

Normalean lehiaketetara aurkeztuko ditudan lanak egiteko denbora gehiago hartzen dut, enkarguz egindako lanak beti atzorakoz izaten direlako. Askok eskertzen da, lan bati denbora gehiago eskaini ahal izateko, lehiaketetan parte hartzea.

Teknika bereziren bat erabiltzen duzu kartelak egiteko?

Gehienetan ordenagailuagaz egiten dut behar, baina lan honetarako arkatzez egin dut hasierako marrazkia; gero, eskaneatu ondoren, ordenagailuagaz koloreztatu eta izenburua idatzi. Lanak eskuz egitea gustatzen zait, eta horregatik saiatzen naiz ordenagailua eta eskulana erabiltzen.

Zer ezaugarri esango zenuke dauzkala zure estiloak?

Testurak erabiltzea gustatzen zait asko; hainbat programa uztartzea, eta ahal dudanean arkatzagaz eta paperean lan eginez abiatzea diseinua. Hala ere, lan bakoitzak bere ezaugarriak eta bere estiloa eskatzen ditu.

Zer onura dakartzkio diseinatzaileari eskuz zein ordenagailuz abila izateak?

Ona da ordenagailuan ipini aurretik eskuz marrazten jakitea. Ordenagailuak gauza asko gehitzen dio lanari eta aukera asko ematen ditu, baina beste tresna bat da: eskuz egindakoa beti izango da pertsonalagoa. Bi teknikak nahastea da interesgarria.

Zelan bururatu zitzaizun kartelean jasotzen duzun irudia?

Kartel lehiaketaren gaia sexualitatea zela kontuan hartuta, zalan-tza egin nuen, hasieran, emakume bi, emakume bat eta gizon bat edo zer ipini kartelean... Azkenean, bakoitzak norbere sexualitatea duela pentsatuta, neska bakarrik eta hodeietan jasotzen duen irudia joan zen ateratzen.

Mezua lanean hasterako argi izaten duzu ala egin ahala doa mezua ere zehazten?

Gehienetan mezua argi izaten dut, baina askotan egiten zoazela sortzen dira aldaketak.

Enkarguak egiten dituzu?

Lanetik kanpora lagun batezagaz egiten ditut diseinu eta argazkigintzako enkarguak, eta egunen batean gure enpresa eraikitzeko asmoa daukagu.



Berriz 2010eko Martxoak 8,
Emakumeen Nazioarteko Eguna

MARTXOAK 7 domeka
• 1. "añeketan" emakumeen karrera Berrizen
12:00etan futbol zelaiari batu izen ematea bukatu eta dorsal banaketa.
Helburua: Futbolaren Kultur Etxean (30m)
Lasterketa amaituta, 300m aterako da eta Berrizko garraioekin batera bidaliko da. Emakumeen 2010eko Munduko Martxoaren bat eginez, lan banaketa. Lunxa

• Hauxe da paraderu! Antzerkia (euskeraz)
20:00etan Berrizko kultur etxean. Sarrera: 6 euro, traman la bix antzerki taldearen eskutik

MARTXOAK 8 astelehena
"EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA"
18:30etan Bilera Gure Itzarrak taldearen lokalean.
(katea eta pastorea)
19:30ean KONTZERTAZIOA
Urtiaga Plazan antzerki sketzarekin

• Jabekuntza saiok emakume helduentzako
Aldurak, banatuak, bikoterik ez dugunok eta lesbianok nola bizi dugu sexualitatea?
Barikuntan 14:00etatik 18:00etara Kultur Etxean, Miriam Herbon adituarekin.

• Nola bizi dugu sexualitatea 13-14 urteko neska gazteok?
Apirilaren 14 - Maiatzak 4 14:00etatik 18:00etara

• Barrelerapia
Hileko azken astirartan
Informazioa eta izena emateko: 665 72 26 63

'Añeketan' emakumeen lehenengo lasterketa antolatu dute Berrizen

Egitarauko berrikuntzen artean, emakumeei zuzendutako lasterketa, berdintasun arloko argitalpena, ikastaroak eta tailerrak azpimarratu dituzte antolatzaileek.

Berrizko emakumeak kalera irten-go dira martxoaren 7an, 12:00etan, *Añeketan* lasterketa-ren lehenengo edizioan parte hartzera. Parte hartzeko, aurreko egunean Udaletxean izena eman daiteke. Lasterketa hasi orduko ere aukera izango da. Ibil-

Lasterketa amaieran, Emakumeen Mundu Martxagaz bat eginez argazkia aterako dute. Lasterketan parte hartu ez arren, argazkian ateratzeko dei egin diete Berrizko emakumeei. Gainera, *Hauxe da paraderu!* antzezlanaren taularatuko dute Trama ta Brix ondarrutarrak.

Emakumearen Egunean, 19:30ean, kontzentrazioarako deia egin dute Urriaga Plazan. Udaltzak aho batez onartu duen adierazpen instituzionala irakurriko dute. Gaberdi taldeak girotuko du ekitaldia.

Jabekuntza saioak antolatu dituzte emakume helduendako, Miriam Herbo psikologoaren eskutik. Gazteentzako sexualitatea genero ikuspuntutik lantzeko tailerra emango du Eider Goiburuk. Gure Izarrak taldeak ere barreterapia saioa antolatu du hileko azken barikuetan Berrizko kiroldegian.

Sari sinbolikoak parte-hartzaile gazteenari eta zaharrenari

bidea hiru kilometrokoa izango da. Iturriza kalea, Zengotitabengoa, Matzagabarrena eta Geltoiki kalea zeharkatuko dituzte. Helmuga Kultur Etxean ipiniko dute. Sari sinbolikoak banatuko dizkiete parte-hartzaile gazteenari eta zaharrenari.



Emakumearen Egunean ipuin kontalariak eta antzerkia ikastetxeetan

Ikastetxeek martxoaren 8an Emakumearen Egunagaz bat egin dute Berrizen. Adin guztietarako ekitaldiak antolatu dituzte berdintasuna ikasle gazteekin lantzeko.

Ipuin kontalariekin jorratu gura dute Berrizen berdintasuna. Ipuinak hezkidetzaren ikuspuntutik lantzen dituen Kontukantoi ipuin kontakizunak ikastetxeetan eskainiko dituzte. Gainera, adin tarte bakoitzari zuzendutako ipuinak aukeratu dituzte. Learreta Markina ikastetxeko Lehen Hezkuntzan zein DBHn arituko dira kontu kontari. Institutuko ikasleek antzerki saioa ere izango dute ikusgai.

Ipuin saio hauetan, pertsona batek ipuina kontatzen duen bitartean beste batek koaderno handi batean marraztu egiten du. Ipuin bakoitzeko marrazki bat. Helburua dibertimendua eta une atsegina pasatzea den arren, genero parekotasuna landuko dute ahazkotasun eta irudien bitartez. Zenbait estereotipo zalantzan ipiniko dituzte. Ordu beteko saioan kontatuko dituzten istorioetan hizkuntza eta mezua zaintzen dutela diote antolatzaileek, "sexu arraza edo kondizio sozialak bultzaturiko diskriminazioa agertu ez dadin".

Protagonistak emakumeak dira. Emakumeen ikusezintasuna gaur egungo arazoetako bat da, eta horregaz emakumeen "ez agertzeari" aurre egin gura diote.

Kontukantoi taldeko kideen saioan esterotipoak landuko dituzte



Berbaldiak eta emakumeendako bazkaria antolatu dituzte lurretan

Lurretako Udalak Anderebide taldeagaz batera hainbat ekitaldi antolatu ditu martxoaren 8rako. Emakumearen Egunean Ibarretxe kultur etxean adierazpen instituzionala irakurriko dute. Emakume kirolariekin hitzordua martxoaren 10erako prestatu dute.

Adierazpen instituzionala irakurritako jarraituko dute lurretan Emakumearen Nazioarteko Egunearako prestatu duten egitarauagaz. Ibarretxe kultur etxean martxoaren 8an batuko dira, 19:00etan.

Berbaldiak antolatu dituzte otsailean eta martxoan. Hurrengo asteotarako ere hainbat hitzaldi prestatu dituzte. Euskal Herriko emakumezko kirolarien arteko mahai-ingurua eskualdeko eta Euskal Herriko emakume kirolari ezagunen bilgune izango da. Emakumeek kirolean bizi duten egoera lantzeko aukera izango dute martxoaren 10ean, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

Urtero antolatzen duten emakumeendako afarian parte hartu gura dutenek txartela eskuratzeko aukera dute oraindik, martxoaren 8ra arte, Kultur Etxean.

Autobusa ipiniko dute 20:45ean posta bulego aurreko geltokian, Goiuriko lkupegi jatetxera joateko. Anderebideko bazkideendako 20 euroko prezioa jarri dute antolatzaileek. lurretan erroldatuta daudenendako 25 euro izango dira, eta 30 euro besteendako.

Afarian parte hartzeko txartelak salgai daude Kultur Etxean

Emakume kirolarien mahai-ingurua antolatuko dute Kultur Etxean

Bideoforumak *Las mujeres de verdad tienen curvas* filma izango du mintzagai martxoaren 11n, 18:30ean, Kultur Etxean. Bertratzen diren lagunen mahai-inguruko moderatzaile arituko da Marina Santa Coloma Sko-lastikako arduraduna.





Isabel Abella: "Eskubideak ezagutzea ezinbestekoa da berdintasunera heltzeko"

Abella Legalek hainbat berbaldi ematen dihardu lurretan. Berdintasun gaiak lantzen dituzte hainbat ikuspuntutatik. Arlo juridikoaz gainera, formazioan ere eragiten dute. Isabel Abellak zerbitzu honetan dihardu lanean. Abokatua izanda, emakumeen eskubideak ezagutzea emango ditu, martxoaren 25ean, Ibarretxe kultur etxean emango duen berbaldian.



Noiztik diharduzu berdintasun gaietan lanean?

Urte batzuk daramatzat gizarte gaiak lantzen. Zerbitzu hau antolatatu aurretik Hego Ameriketako hainbat herrialdeetan behar egin dut, batez ere, genero indarkeriaren inguruko gaietan. Nazioarteko erakundeetan ere bai; Europako Parlamentuan, esate baterako, giza eskubideen gaietan, eta Venezuelan ere izan nintzen.

Hainbat herrialdeetan behar egin dozu. Oinarrizko arazoa bera da?

Berdintasun eza herrialde batzuetan beste batzuetan baino nabarmenagoa da, legeria leku batzuetan beste batzuetan baino garrantzitsuagoa dagoelako. Hala ere, emakumeen eta gizonen arteko aukera desberdintasuna herrialde gehienetan dago, eta horren erakusgarri larriena genero indarkeria da. Herrialde batzuetan legeria gizartearen aurretik doa eta beste batzuetan guztiz kontrakoa gertatzen da.

“Iurretan emakume eta gizonen eskubide legalak hartuko ditut berba”

Gai honetan hemen aurrerapausuak eman direla uste duzu? Lege berria aurrerapausu izan da. Eztabaida handia eragin du, Auzitegi Konstituzionalean helegiteak tartekatu dira. Beharrezkoa zen, eta emakume asko babesten ditu. Koordinazio arloan oraindik zer hobetu badagoren arren, hobekuntza handiak egin dituztelakoan nago.

Emakumeek legalki dituzten eskubideak ezagutzen dituzte? Arlo horretan ere badago zer hobetu?

Iurretan eskubide legalen inguruan berba egingo dut. Esate baterako, gaietako batek gaurkotatzen handia dauka: banatuta eta dibortziatuta daudenen kasuan

lege berriagaz alargun-pentsioa jasotzerakoan gertatzen dabilena azalduko dut.

Emakume batzuk alargun-pentsioa jasotzeko arazoak dituzte.

Garrantzitsua da banatuta eta dibortziatuta daudenek jakin dezatela ebazpen horiek aldatu behar dituztela, alargun-pentsioa eskatuz gero jaso ahal izateko. Egitatezko bikote egiten dabilzanek ere jaso dezakete, baina jakin behar dute zelan egin. Gizarte Segurantzak emakume askori esan die, hainbat urtean kotizatu eta gero, ez daukatela alargun-pentsiorako eskubiderik. Askok ez du erreklamatu, baina jakin egin behar dute erreklamatzeko aukera badagoela. Emakume asko dabilza eskubide hori epaitegietan aldarrikatzen.

“Banatutako alargun asko pentsio barik gelditu dira, eta erreklamatu daiteke”

“Estatuko lehenengo kasua Durangaldeko bat da. Auzitegietan dago.”

Emakume asko daude alargun-pentsiorik bako egoera horretan? Gure eskualdean ere horrelako kasurik dagoen badakizu?

Emakume edadetuei eragiten die gehien. Kaltetu bi inguru horretakoak dira. Izan ere, estatu mailako lehenengo kaltetua da horietako bat, eta kasua Auzitegi Gorenean dago. Kasu horren moduko asko daude: emakume bat etxean familia zaintzen egon da, eta 65 urte ingurugaz banatu egin da. Handik bi urtera gizona hil egiten da. Emakume horri

pentsio konpentsatorio hori errekonozitu ez badiote, pentsioa ukatu egingo diote. Hainbat hamarkadatan, Gizarte Segurantzari bikote batek egindako kotizazioak dira eta ez dira likidatzen. Injustizia bat da, 60 urtetik gorako emakume bat kotizatzeko denborarik barik ezer barik uzten dutelako pobrezia atean. Jendeak egoera hori ezagutzea garrantzitsua da. Banatzerakoan klausula hori ondo betetzea garrantzitsua da, gero alargun-pentsioa kobratzeko.

Emakumeek berbaldietan zer galdetzen dizute? Zalantza asko dauzkate lege aldetik dauzkaten eskubideen inguruan?

Emakume askok familiako gaiet buruz galdetzen didate. Seme-alabek bikotea dutela baina ez dutela ezkondu gura azaltzen didate. Egitatezko bikoteek eta ezkonduak zein eskubide dituzten ere bai. Banaketa kasu baten adostasunera heltzeko zer eskubide dituzten. Genero indarkeria kasuetan emakumeek zer laguntza dituzten. Laneko gaiak ere galdetzen dizkirate. Alabaren bat haurdun gelditzearren kaleratu dutela-eta, zer eskubide dituzten.

Hurrengo berbaldia martxoaren 25ean emango duzu lurretan. Zein gairi buruz berba egitea aurreikusi duzue?

Berbaldiaren izena *Ez zaitetz isilik gelditu* da, 18:30ean Ibarretxe kultur etxean. Gai honen inguruko bigarren saioa izango da, eta genero biolentziaren gaia aztertuko dugu. Jende askok pentsatzen du berari eta ingurukoiei ez zaiela gertatuko. Emakume horiei zelan lagundu azalduko dut. Zein laguntza dituzten eskura. Zer baliabide dauden.

MARTXOAK 8

IURRETA - 2010

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

OTSAILAK 20 10:00-14:00 18:00-21:00 **Galurra kultur gunea**
EMAKUMEENTZAT AUTODEFENTSA IRABAZKORRA
 Formatzaillea: MAI MONEO

OTSAILAK 25 18:30 **Ibarretxe kultur etxea**
HITZALDIA.
 EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES A TRAVES DEL CONOCIMIENTO DE SUS DERECHOS
 "LA IGUALDAD: CONCEPTOS Y MANIFESTACIONES" Hizlaria: ISABEL ABELLA

MARTXOAK 4 18:30 **Ibarretxe kultur etxea**
HITZALDIA.
 EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES A TRAVES DEL CONOCIMIENTO DE SUS DERECHOS
 "NO TE QUEDES CALLADA I" Hizlaria: ISABEL ABELLA

MARTXOAK 8 19:00 **Ibarretxe kultur etxea**
ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN IRAKURKETA.
 Formatzaillea: MAI MONEO

MARTXOAK 10 18:30 **Ibarretxe kultur etxea**
MINTZALDIA.
 "SITUACION DE LA MUJER EN EL CONTEXTO DEPORTIVO DE LA CAPV"
 Parte-hartzaileak: Hainbat kirol-motako emakumeak

MARTXOAK 11 18:30 **Ibarretxe kultur etxea**
RIDEOFORUM.
 "LA MUJERES DE VERDAD TIENEN CURVAS"
 Moderatzailea: MARINA SANTA COLOMA (Skolastika)

MARTXOAK 13 21:30 **Ikuspegi Jaietxea (Galurra)**
EMAKUMEENTZAKO AFARIA.
 [Autobusa jarriko da 20:45etan "Correos"ko geltokian]
 Txarriak salgai martxoak 8a arte Ibarretxe kultur etxean. Leku-kerpu mugatua.
 Prezioa: Bazkideak-20 euro / Erretiratatuak-25 euro / Besteak-30 euro

MARTXOAK 25 18:30 **Ibarretxe kultur etxea**
HITZALDIA.
 EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES A TRAVES DEL CONOCIMIENTO DE SUS DERECHOS
 "NO TE QUEDES CALLADA II" Hizlaria: ISABEL ABELLA

JURBETS
ELEIZATEKO
UDALK

Ordu asko

beharrean, etxeko lanetan, zaintza-lanetan...



eta denbora gutxi

gizarte eta kultur jarduetarako, aisialdirako...

Zentzuz eta berdintasunez banatu
dezagun gure buruarentzat, lagunentzat,
famiarentzat eta lanerako dugun denbora.

MARTXOAREN 8a.
EMAKUMEEN
NAZIOARTEKO EGUNA





“Estilo desberdinak sortu dira”

Berbaldi zikloa zabaldu zuen atzo Andoni Egañak. Bere bizipenetatik, txapelketak eta bertsogintzak izandako bilakaera aztertu zuen lau bider txapeldun izandakoak.



Asier Arroita

Zein izan da, zure ustez, bertsogintzan eman den aldaketa nabarmenena?

1967ko txapelketara joanda, Uztapidek bota zituen bertso ospetsu batzuen gaia “ama” izan zen. Handik 13 urtera, 80an, Amurizak irabazi zuenean bere bakarkako gaia “aita” izan zen. 82an, Amurizaren bigarren txapelean, “emakumea”. Logikari jarraituz, hurrengoan gaiak “amona” edo “seme-alabak” izan beharko luke (barrez). Baina hortik aurrera, gauzak aldatzen hasten dira. Esan daiteke ordu-ra artekoak gai generikoak zirela; gainera, 67an generikoki kantatu zuen Uztapidek. Zergatik? Bada, aurrean zuen publikoak ikuspegi beretsua zeukalako, erlijioa eta familian oinarritua. Baina 80an, jendea aldatzen hasi da, eta Amurizak emozioa sortzeko ez du nahikoa aita generiko batez abestea, eta bereari kantatzen dio. 86tik aurrera gaiak desberdintzen hasten dira, konkretuagoak dira. Final horretako gaia zera zen: “Herriko

1986-2009. Desberdintasun handiak?

Ez dut uste sakon-sakoneko aldaketarik dagoenik. Orduko neurri, errima eta abarretan gabiltza. Hori bai, bertsolari gehiago jaio eta estilo desberdinak sortu dira. Etorkizunari begira ere igarri daiteke hori, batez ere bakarkakoetan, aukatzen gabiltzan doinuak-eta ikusita.

Batzuen iritzi, gaur egungo bertsogintza hurregi dago literaturatik...

Bakoitzak bere tresnak erabiltzeko ahalgina egiten du. Lehen inork gutxik kantatzen zituen zortzi puntukoak, eta gaur egun finalera heltzen den edonork. Zortzi puntu betetzeko, baliabide literarioekin ez bada, ezinezkoa da.

Bertsoaren egiturari, badago alderik?

Nire iritzi, lehen ez bezala, gaur egungo bertsogintzan barrukoa indartzen da gehiago, eta amaiera, azken puntua, arinago geratzen da.

Emozioak pisu handia du gaur egun...

Lehen ere bai, nire ustez. Egia da, jendearen erreakzio eta tendentzietara oso adi egon beharko genukeela. Txapelketako finala amaitzean, jendea etortzen zaigu eta esaten digu: “Zer ondo pasatu dugun, zenbat negar egin dugun!”. Urtean zehar, bestalde, zera esaten digute: “Zenbat barre egin dugun!”.

Txapelketa atzean utzita, zer duzu buruan?

16 urtean txapelduna izanda, norbete ganean “foko” bat edukitzen da. Horren azpitik irtetzea lasaigarria da. Egunez egun egingo dut lan. Urtean zehar ere azaltzen ditu bertsolariak bere grina, ideiak eta berrikuntza gogoak.

“Baliabide literarioekin ez bada, ezinezkoa da zortzi puntu betetzea”

bandoa egin behar duzu”. Denboran aurrera, eboluzioa desberdina izan da: gai konkretuak hartzen ziren; 2005ean, aldiz, oso zabalak: markoa bakarrik ematen ziguten; 2009an buelta txiki bat emanez, markoa jarri digute, baina elementu konkretu batzuk ere bai...

Zein izango da zuen berbaldiaren helburua? Zer erakutsi gura duzue?

Gure helburu nagusia parte-hartzaileek gu gai bat planteatzera zelan heltzen garen ulertzea da. Sorkuntza prozesu horretaz aparte, txapelketetan izaten ditugun irizpide eta pausak azalduko ditugu; gai bat bertsoaldi jakin baterako aukeratzeko edo atzera botatzeko arrazoiak, esaterako.

Zuek txapelketan ipinitako gaiak aztertuko dituzue?

Txapelketa osteko gogoeta legez planteatuko dugu. Materiala batu eta aztertuko dugu ikus-entzunezko formatuan, jendearenekin entretengarriago egiteko. Izan ere, gu ez gara protagonistak, bertsolarien laguntzaileak baizik. Balorazioak egiteko aprobetxatuko dugu.

Ez da erraza izango gai egokia topatzea...

Ez du zer ikusirik plazako gai batek txapelketako bategaz. Txapelketaren kasuan, partaideen filtrotik pasatzen dena izango litzateke egokiena.

Gaiak zabalak direla, itxiak direla... eztabaida ere izan da azkenaldian.

Bakarkakoetan, batez ere, mugak jartzen joan izan dira gai-jartzaileak. Lehen gaia “euria ari du” zen; gero “euria ari du eta goiz esnatu zara”; eta orain “euria ari du, goiz esnatu zara eta ez duzu kalera irtezteko gogorik”. Hala ere, batzuek diote oraindiko ere gaiak zabalegiak direla. Baina kontua da, kartzelakoan, adibidez, entzulea ez dagoela prest zortzi bertsolari gauza bera esaten entzuteko. Hori bai, gertatu izan zaigu gai bat zabala delakoa ipini, eta bertsolariak eduki berberari

heltzea; 2009ko finalean kazetariaren gaiagaz hori pasatu zitzaigun.

Non dago fikzioko eta errealitateko gaien arteko oreka?

Iaz lehenengoz parte hartu nuen Txapelketa Nagusiko gai-jartzaileen taldean, eta urrian hasiko zen txapelketako lane-rako, aurreko abenduan deitu ninduten. Gai-poltsa bat osatzen joaten gara, eta horrek ia aktualitate bakoak direla esan gura du. Momentuko egoeran gizar-tean

“Partaideen filtrotik pasatzen dena izango litzateke gairik egokiena”

gertatzen diren gaietarako leku bat uzten dugu, eta txapelketan zehar astero-astero nahasten ditugu fikziozkoekin.

Finalekoak gai serio edo gordinegiak izan zirela ere entzun izan da...

Kritikak, asmo onez egiten direnean, ondo jasotzen ditugu. Onak ere jasotzen dira: gai bat giltzurrun trasplanteen ingurukoa zen, eta elkarte batek eskerrak eman zizkigun prentsako artikulua bat idatziz. Kasu horretan, finalean, nik ere sententzia hori eduki nuen saioa amaitzerakoan. Aurretik prestatuta geneuzkanein une horretan sortu zirenak batu genizkien; gu ere ukitu gintuzten gaiak. Baina esan beharrik ere ez dago, beti ahalik eta ondoan lan egiten saiatzen gara.

“Gogoeta legez planteatuko dugu”

Datorren asteko gonbidatua izango da Maite Berriozabal gai-jartzaile berriztarra. 2009ko Txapelketa Nagusian ipinitako gaiak aztertuko ditu, Unai Elizasu lagun duela.



ERITZIA >

Gutunak

Izurtzako Udalaren jarrera radar faltsuen inguruan

Izurtzako Udalak behin eta berriz agerian jarri du herria erdibitzen duen BI-623 errepideak herritarrentzat suposatzen duen arriskua. Izan ere, egunero 8.500 ibilgailuk gurutzatzen dute, hauetatik 1.800 kamioiak direlarik.

Agerikoa da nahiz eta gehienezko abiadura baimendua 50km/h izan, inor gutxi errespetatzen duela. Bertatik auto eta kamioiak 80km/h-100km/h abiaduran pasatzen ikustea ohikoa da. Udalak behin baino gehiagotan jakinarazi dio arazo honen berri Bizkaiko Foru Aldundiaren Errepide Sailari.

Udalak gasolindegia ondoan errotonda bat proiektatua du. Baina Foru Aldundiak proiektuan inolako zentzurik gabeko aldaketak egitera behartu gaitu behin eta berriz, proiektua aurrera ateratzea oztopatuz. Hau gutxi balitz, errotonda honetarako finantziatorik ez dute aurreikusitako, nahiz eta guk arazoaren larritasuna mahai gainean jarri. Honetaz gain, Izurtza herri bizigarri bat izan dadin eta gerora modu egoki batean garatu nahi badugu, ezinbestekotzat jotzen dugu errepidea herri erditik aldentzea eta trafikoaren baketze-neurri zorrotzak lehenbailehen hartzea. Foru errepideetan udalek ez dute baimenik ez eskumenik beharrezko diren trafiko baketze-neurriak hartzeko, eta Foru Aldundiak ez ditu neurriak aplikatzen.

Udalak egina du errepidea desbideratzeko aukera ezberdinen azterketa bat, ingurumenaren eraginaren ebaluazio bateratuaren azterlanarekin batera. Dokumentu hau Foru Aldundiaren esku dago, baina esan digutenez, ez dago bere lehentasunen artean Izurtzan errepidea desbideratzea, beraien iritziz gaur egungo errepidea segurua baita.

Udaletik gure esku dagoen ahalegin guztia egin dugu eta egin dugu gai honi irtenbide bat emateko, baina gaur egun ezin daiteke irtenbiderik eman Foru Aldundiaren borondatearik gabe.

Horregatik, radar faltsuen inguruan gure balorazioa baikorra da, izan ere, Izurtza erdibitzen duen errepide honen arazoa kaleratzeke balio izan du, eta, gainera, autoak abiadura moteldu dute herritarren segurtasuna eta bizi-kalitatea hobetuz.

Orain Foru Aldundiak radar hauek kenduko dituela adierazi digu, ilegalak omen direlako. Bizkaiko Foru Aldundiak Izurtzako udala espedientatu du radar hauek bide segurtasunerako arriskuak direla argudiatuz. Radar faltsuak ez ditu Izurtzako Udalak jarri, herri-ekimen bat izan da. Dena den, nola esan daiteke abiadura limiteak errespetarazi egiten dituen ekimen bat bide segurtasunerako kaltegarria dela?

Gure aldetik ez gaude radar hauek kentzearen kontra, beti ere Foru Aldundiaren partetik berehalako soluzio konkretuak planteatzen badira. Baina ez guke nahi lehengo egoerara bueltatzea. Konpromisoak hartzeko garaia da.

Udaletik jakin nahiko guke zer egingo duen Foru Aldundiak Izurtzako herritarren bizi-kalitatea bermatu eta arazo honi irtenbidea emateko. Gai honekiko Foru Aldundiaren isiltasunak kezkatzen gaitu. Ez dakigu bere intentzioa zein den: polemika pasatzen uztea arazo honi inolako soluziorik eman gabe edo bere eginbeharra betez arazo honi irtenbide eraginkorrek ematea.

Izurtzako Udaletik, Bizkaiko Foru Aldundiari luzatzen dizkiogun eskariak hauek dira:

- Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoak hartu ditzala gaur egungo errepidearen arazoari irtenbide bat eman ahal izateko.
- Radarrak kentzean abiadura kontrolatzeko neurri eraginkor eta iraunkorrek hartzea.
- Errotondaren proiektua bere gain hartu dezala eta berai erai-

kitzeko data konkretuak jarri ditzala.

- Errepidea herrigunetik ateratzeko proiektua gauzatzeko baliabideak jarri eta egin dadin epeak zehaztu ditzala Durangaldeko LZPan agertzen dena bezala.

Izurtzako udaleko Gobernu Taldea

Iurretako abadetxea

2006ko abenduaren 30ean, Abadetxea istripu baten ondorioz erre ostean, Iurretako hainbat elkarte, talde nahiz Gazte Asanblada kale gorrian gelditu ginen. Honen aurrean Udalak guztiz axolagabe jokatuz, jada eraikin honen inguruan espekulazioak eginez eta Iurretako herriaren nortasuna finkatzen duten taldeei inongo irtenbiderik eman gabe, are gutxiago Gazte Asanbladaren kasuan, nortasun juridiko baten falta dugula argudiatuz, aurreko urteetako lanaren zilegitasuna zaborretara botaz.

Abadetxea erre zenetik, hainbat eraikuntza okupatu ditugu baina denetatik bota gaituzte, modu bortitzean.

Oraindik kale gorrian jarraitzen dugu eta Udaletxearen zein alkatearen posturak ez digu asko laguntzen, nortasun juridiko horrek oztopo gehiago jartzen dizkigularik. Gukleku autogestionatu bat nahi dugu, gure kontzertuak, bertso eskola zein beste ekintza batzuk aurrera eramateko.

Denok jakingo duzuen legez, Iurretako Abadetxearen salerosketak bertan behera gelditu dira, errearen kontua dela-eta! Erreka Abadetxearen ondotik pasatzen da eta zera diote: lehenengo solairuan ezin dela ezer egin. Beraz, Udaletxeak ez du ezer jakin nahi Abadetxearen kontuarekin. Udaletxeak eskuak garbitu ditu hori esanez. Orain Udaletxearen asmoa hondamendia deklaratzeko da. Eta gu, nora joango gara? Zer egingo dugu? Berriz ere kale gorrian? Iurretako gaztetxeak zein beste eragile batzuek Abadetxera joateko asmoa genuen, baina orain asmo horiek bertan behera geratu beharko dira. Denbora gutxi barru etxe hori desagertu egingo delako.

Horrekin gure ametsak zapuztu dizkigute.

...ta kondairak aurrera darrai!

Iurretako Gazte Asanblada

Gazteluko bidea?

Horrela dago Gazteluko bidea. Ikusten denez ezinezkoa da bertatik igarotzea. Orain dela zenbait egun Ertzaintzak ezin izan zuen pasatu, eta oso garrantzitsua deritzogu zerbait gertatzen bada bidea behar den bezala egotea. Gainera, Navarrok orain dela urte bat bere aurrekontuetan jaso zuen diru kopuru bat hau konpontzeko eta ez du ezer egin. Navarro alkateak bere herriko auzoei arreta handiagoa jarri behar lieke. Lotsagarria!

Zer gertatuko da mendi batek sua hartzen baldin badu? Non-dik pasatuko dira suhiltzaileak?



Bitor Etxeguren (Abadiño)

Sei hankako mahaia



Juan José Gastañazatorre
PP

Egonkortasun instituzionalerako akordioa

Ezin genuen sinetsi eta ez dugu sinesten. Durangoko aurtengo aurrekontuetarako akordioa antzerki hutsa da; bai EAJk bai PSEk euren burua derrigortuta ikusi dute akordio batera iristerra, bi alderdiek aurrez erabakitako paktuengatik.

Elkarrizketarako ustezko borondatea ez da inon ageri. Alderdi Popularrekook albo batean egotera behartuta egon gara, Gobernu Taldeak ez digu inolako proposamenik helarazi gure taldearekin balizko elkarrizketaren bat bideratzeko, gure ekimenek ez zuten lekurik, aurrekontuek aurrera egin behar zuten... Eta zer eta euren areririk gogorrenarekin negoziatu dute; horrela agertu izan dute, Durangoko Udalean behintzat.

Zalantzan jartzen dugu gure ustez errentagarria izango ez den inposaturiko akordio batek inori onik ekarriko dionik; EAJri izan ezik, noski, aurreko urteetan akordioetara heldu ezin izan badu ere orain lortu egin baitute, udal hauteskundeak baino urtebete lehenago, aurrekainari hasiera emanez. Aurrekontu akordioarekin batera euren hautagaia burrunbaka arukez izana da "froga". Herri-tarrak engainatzea zaila dela deritzogu, eta oraingoan trikimailua begibistakoezia izan delakoan gaude.

Paperak edozeri eusten dio. Erdipurdiko aurrekontuek urte zaila eta erdipurdikoa ekarriko digute Durangorentzat, zeinak kudeaketa eskasaren ondorioak pairatzen ari den bai EAJren aldetik Durangon bai PSOeren aldetik Espainia osoan.

Durangoko aurtengo aurrekontuetarako akordioa antzerki hutsa da, eta EAJri baino ez dio onik ekarriko

*Erredakzioan itzulia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko martxoaren 5a - 9. urtea - 364 zk.

Laguntzailea:

Bizkaiko Foru Aldundia

Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurretako	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:
Joseba Derteano.

Administrazioa:
Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Gemma Aldalur.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilaria: Iban Gorriti, Ana Domínguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21



Kataide Industrigunea, pab. 3
20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52-77 00 34
Faxa: 943 77 13 13

ORAIN DURANGON!

Intxaurrondo, 12 behea
48200 Durango
Tel./Faxa: 94 681 34 85



 <p>1200 b/min 8 Kg</p> <p>GARBIGAILUA F-2812 465 €</p> <p>FAGOR</p>	 <p>1200 b/min 7 Kg</p> <p>GARBIGAILUA WAE 24472FEP 450 €</p> <p>BOSCH</p>	 <p>1000 b/min 7 Kg</p> <p>GARBIGAILUA WM 10E020EP 360 €</p> <p>SIEMENS</p>	 <p>800 b/min 5 Kg</p> <p>GARBIGAILUA ALF 108 285 €</p> <p>HISPANIA</p>	 <p>ONTZI-GARBIGAILUA 2LF0135X 435 €</p> <p>FAGOR</p>
 <p>2000 X 600 X 600</p> <p>NO FROST HOZKAILUA KGH39A73 735 €</p> <p>BOSCH</p>	 <p>2000 X 600 X 600</p> <p>NO FROST HOZKAILUA FFA 6815X 615 €</p> <p>FAGOR</p>	 <p>32LH2000 TV 32" LG HD Ready 390 €</p>	 <p>TX-L32S10 TV 32" Panasonic Full HD 1080 445 €</p>	 <p>TX-P37104 TV 37" PANASONIC Full HD 1080 520 €</p>

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagutu gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

 <p>ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA. BRAMANGO DA</p>	 <p>MERKEAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA</p>	 <p>GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU</p>	 <p>+dendak-EKO "DURANGO" TXARTELA ERABILTARRI</p>
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Martxoaren 12an, 22:00etan

LA MUERTE Y LA DONCELLA

Paulina Salasen istorioa da lan honetakoa; bera 20 urte lehenago bahitu eta torturatu zuen gizona bahitzen du. Txilek 90eko hamarkadan bizitako trantsizio politikoaren sasoian idatzi zuen lan hau Ariel Dorfmanek. Latinoamerikako lanik antzeztuena, justiziaren eta barkamenaren, oroimenaren eta ahanzturaren gaineko klasiko dugu antzeztan hau.

ANTZERKIA

ABADIÑO

>> **'De película' (Oihulari clown)**, martxoaren 13an, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

BERRIZ

>> **'Hauxe da paraderu'**, Ondarroako Traman & Brik antzerki taldeak sortutako ikuskizuna, martxoaren 7an Berrizko Kultur Etxean, 20:00etan.

>> **'Hala bazan'** umeentzako antzerkia, Berrizko Kultur Etxean, martxoaren 12an, 17:30ean.

ELORRIO

>> **'La muerte y la doncella'** antzerkia, martxoaren 12an, 22:00etan Arriolan.

ERMUA

>> **'Mirando a Youkali'** Alba Sarrauteren eskutik, hilaren 12an, Lobiano kulturgunean, 22:15ean.



>> **Entremeses cotidianos** antzerki saioa, martxoaren 5ean, Lobiano kulturgunean, 22:15ean. Izarraitz taldearen eskutik.

>> **Haurrentzako antzerkia: 'Piedra a piedra'** martxoaren 13an, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.



ZALDIBAR

>> **Emakumearen astearen barruan 'El pico de las viudas'** Suteji taldea, martxoaren 5ean, 20:00etan, herri-ikastetxean.

BERTSOAK

ABADIÑO

>> **Bertso afaria** martxoaren 5ean, Traña Matienako Oregi jatetxean, 21:30ean. Sustrai Colina, Etxahun Lekue eta Amets Arzallus bertsolariak izango dira bertsoetan.

BESTEAK

DURANGO

>> **David de Bustos (Magia + Globoflexia)** martxoaren 12an, Café Misarven, 23:30ean.



IURRETA

>> **Iurreta Txirrindulari Elkarteak 69 km-ko ibilbidea** antolatatu du martxoaren 6an eta 7an, goizeko 09:30ean. Ibilbidea: Iurreta-Autzagana-Gernika-Muruetagana-Laga-Laida-Gernika-Autzagana-Iurreta.

ZALDIBAR

>> **Zapatublai** karaokea, martxoaren 6an, 16:00etatik 19:00etara.

>> **Emakumearen astearen barruan Afaria eta dantzaldia**, martxoaren 6an, 21:30ean, Goierrin, goizeko 10:00etan Solobarrian.

>> **Zaldibarko Gaztetxeko 6. urteurrena dela eta:** martxoak 5ean, 16:30ean umeentzako jolasak eta txokolatada egongo dira. Martxoaren 6an, 14:00etan, aureskua dantzatuko zaio Gaztetxeari eta ondoren herri-bazkaria egongo da.

ZORNOTZA

>> **Irteerak: GR-98 Urdaibai Biosfera erreserbari itzulia**, martxoaren 6an, Autzagane-Munitibar. Izen ematea eta informazioa, Zelaieta zentroko harreraren.



DANTZA

DURANGO

>> **Dantzaldi herrikoia** Durangoko Plateruena kafe antzokian, martxoaren 13an, 19:00etan.



DEIAK

DURANGO

>> **Odola emoteko aukera**, eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrea. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

ERAKUSKETA

ABADIÑO

>> **Matriuska errusiarrak dira Abadiñoako Martxoak 8ko lehiaketa irabazi duen kartelaren ardatza.** Sariak banatzeko ekitaldia martxoaren 5ean izango da, arratsaldeko 17:30ean, Txanporta kultur etxean. Lehiaketara aurkeztu ziren 14 lanak ikusgai egongo dira kultur etxean, martxoaren 5etik 18ra bitartean.

BERRIZ

>> **'Bizitza minatuak'** Gervasio Sánchez 2009ko Argazki Sari Nazionalaren argazki erakusketa,



otsailaren 19tik martxoaren 12ra, Kultur Etxean.

DURANGO

>> **'La Biblia: Historia de un pueblo que busca su libertad'** erakusketa Aste Santura arte egongo da ikusgai Urbarriko Andra Maria basilikan. Astelehenetik larunbatera, goizez 09:30etik 13:00etara, arratsalde, 17:00etatik 19:00etara. Domeketan goizez bakarrik.

ERMUA

>> **Emakumeen aurpegiak** erakusketa, martxoaren 1etik 14ra, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

>> **Katsumi Komagata.** Martxoaren 30era arte, Liburutegian.

>> **Picassoren emakumeak** mosai-koak. Martxoaren 15era arte, Liburutegian.

IKASTAROK

ABADIÑO

>> **Antzeppen ikastaroa** Ander Lipusen eskutik, martxoaren 6an, goizeko 10:00etatik gaueko 20:00etara. Bazkaltzeko atsedena-dia 14:00etatik 16:00etara izango da. Muntzaratz auzoan Banarte antzerki taldearen lokaletan egingo dute ikastaroa.



BERRIZ

>> **Ikastaroak igerilekuan, Gimnasia eta Cyclinga.** Izena emateko epea: martxoaren 2tik 22ra, Berrizburu Kiroldetxean, 10:00etatik 20:00etara. Zozketa eguna, martxoak 23an; emaitzak 24an.

DURANGO

>> **Zaindu programaren baitan,** Durangoko adinekoen udal egoitzan: **Alzheimer gaixotasuna eta beste dementsia batzuk**, mintegia martxoaren 10an. Ordu eta erdiko saioak dira. **Taldeko laguntza psikologikoa**, bizipenak elkarbanatzeko, martxoaren 9an. Ordua: 17:30-19:30.

>> **Patinaje ikastaroa**, zapatuetan.

6 eta 15 urte bitartekoentzat, 16:00etatik 17:30etara. Nagusientzat, 17:30etik 19:00etara, Kurutzia Ikaola. (Informazio gehiago: 94 603 0031)

>> **Euskal dantzen ikastaroa.** Martitzenero, iluntzeko 19:30etik 21:00etara, Plateruena Kafe Antzokian, AIKO taldearen eskutik.

>> **Adinekoentzako denetario ikastaroak: Landare kontserba eta mermelada ikastaroa, adimen emozionala, etxeko kontabilitatea (Excel), argazkiak moldatzeko ikastaroa, landare osasungarriak eta elikadurari buruzko ikastaroa, barreterapia eta adinari buruzko ikastaroa.** Izen-emateak Durangoko adinekoen udal egoitzan.

>> **Tailerra: Eleberri Beltza.** Apirila bitartean izango dira eskolak. Hamabost egunean behingo maiztasunagaz, Juana Lopez de Muniain-en eskutik. Izena emateko Liburutegira gerturatu.

ELORRIO

>> Apirilaren 10etik ekainaren 19ra Elorriko Udalak antolatatu dituen **dantza ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago.** Izen-emateak Iturri kultur etxean bertan egin behar dira martxoaren 19a baino lehenago. Ikastaroan karibeko dantzak izango dira ikasgai, eta ikastaro honen barruan salsa, bachata, 'rueda de salsa', merenge eta mambo dantzak. Ikastaroak zapatu goizean izango dira, 10:00etatik 12:00etara.

IURRETA

>> **'Solidaridad intergeneracional'** izenburupean, bost ikastaro saio: martxoaren 10ean 'Formación para cuidadores de personas mayores dependientes' 16:00etatik 18:00etara. Martxoaren 11n 'Saber envejecer' ikastaroa, 10:00etatik 12:00etara. Iurretako Udala.

IKUS-ENTZUN

ELORRIO

>> **Hileko film dokumental berria 'Cooking history'** martxoaren 11n, eguenean, 19:30ean, Iturri kultur



martxoko agenda

Martxoak 6-7-13-14-19 • Iurretako Txirrindulari Elkarteak 10:00etan. Ibilbide ezberdinak. (57-90km)

Martxoak 8 • Emakumeen Nazioarteko Eguna Ibarretxe kultur etxea, 19:00 Adierazpen instituzionalaren irakurketa

Martxoak 9-10-12-16 • Herri Biblioteka 9an, 19:00 Irakurlearen txokoa "El lugar" Annie Ernaux 10ean, 19:00 Irakurlearen txokoa "Salbazio armada" Abdela Taia 12an, Ipuin kontalaria. 17:30 (3-4 urte) / 18:00 (5 urtetik gorakoentzat) 16an, 17:30 Bularretik mintzora

Martxoak 10 • Iurretako Emakumeen Bira Kiroi Elkarteak Martxoaren Baren inguruko ekintzak. Ibarretxe kultur etxea. 18:30 Mintzaldia. "Situación de la mujer en el contexto deportivo de la CAPV"

Martxoak 10-11-16 • EHNE-Solidaridad Intergeneracional-10ean, 16:00-18:00 "Formación para cuidadores de personas mayores dependientes" (5 saio) 11n, 10:00-12:00 "Saber envejecer". (5 saio) kurtsoaren hasiera. 16an, 16:00-18:00 "Alfabetización informática". (saio 1) kurtsoaren hasiera.

Martxoak 11-13 • Anderebide Iurretako Emakumeen Elkarteak Martxoaren Baren inguruko ekintzak. 11n, 18:30 Bideoforuma. "Las mujeres de verdad tienen curvas" 13an, Ikuspegi jatetxea (Goiuria), 20:45 Autobusa "Correos" geltokian, 21:30 Afaria.

IURRETAKO UDALA

etxeko areto nagusian izango da ikusgai.

IURRETA

» **Bideoforuma 'Las mujeres de verdad tienen curvas'**. Martxoaren 8an, 18:30ean, Anderebide lurretako emakumeen elkarte. Moderatzailea: Marina Santa Coloma.

IPUINAK

ERMUA

» **Haurrentzako ipuin kontaketa 4-8 urte bitarteko umeentzat**, martxoaren 6an, 17:30ean, haur liburutegian.

IURRETA

» **Haurrentzako ipuin kontaketa** Miriam Mendoza kontalariarekin, martxoaren 12an, 18:00etan Liburutegian.

LITERATURA

IURRETA

» **Irakurleen Txokoa: 'El Lugar'** Annie Ernaux. Martxoaren 9an, Herri Liburutegian, 19:00etan.

» **Irakurleen Txokoa: 'Salbazioko armada'**



Abdela Taia. Martxoaren 10ean, Herri Liburutegian, 19:00etan izango da.

MUSIKA

DURANGO

» **Christina Rosenvinge + Tulsa** kontzertua, martxoaren 5ean, Plateruenean, 22:00etan.

» **Kontzertuak Ttipi Ttapa tabernan** Esti eta Olatz + Kuntur Lee, martxoaren 5ean, 22:30ean.

» **Bizardunak + Les Fabulosos** kontzertua, martxoaren 12an, Plateruenean, 22:00etan.



ERMUA

» **Kontzertua:** Zumaia eta Ermuko Alboka musika bandak martxoaren 12an, 20:30ean, Santiago elizan.

» **Abesbatzen kontzertua:** Pispillu eta Alboka abesbatzak eta Barakaldoko orfeoia, martxoaren 5ean, gaueko 20:00etan, Santiago elizan.

Antolatzailea: Alboka eta Pispillu abesbatzak.

ZALDIBAR

» **Zaldibarko Gaztetxearen urteurrena:** Martxoaren 6an, 16:00ak inguruan, Mis Ovarios 33 antzerki musikala emango dute. 18:00etan, poteo girotua egingo dute Gaztetxean hasita. Gauean, rock kontzertua ospatuko da Tribute to RIP eta Ze Esatek! taldeen eskutik.

» Gaztetxeko 6.urteurrena dela-eta, martxoaren 5ean, 22:30ean, kontzertua Zain Berrizko taldea eta Zaldibarko talde sorpresa baten eskutik.

ZINEKLUBA

DURANGO

» **'La cinta blanca'**, martxoaren 11n, 20:30ean, Zugazan.

ERMUA

» **'Shorok'**, Yolanda Olmos zuzendariaren eskutik, martxoaren 11n, 19:00eta eta 21:30ean, Lobiano kultur gunean.

ZORNOTZA

» **'Adventureland'** martxoaren 9an, 20:00etan, Zornotza Aretoan.



Martxoaren 5ean, 22:00etan

CHRISTINA ROSENVINGE + TULSA

Christina Rosenvinge abeslariak bere diskoko abestiak akustikoan eskaintzen dizkigu, pianoaren laguntzaz batzuetan, bi gitarragaz besteetan. Rosenvingek esaten duenez, "askatasun handia ematen didan formatua da, eta abestiaren letrak oso ondo entzuten dira horrela". Jendeak ezagutzen dituen abestiez gainera, abesti berriak ere aurkeztuko ditu Platerueneko kontzertuan: "Estudioan grabatu aurretik interesgarria da ikustea zuzenean abestutako zer abestik lortzen duen jendearengana heltzea".

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Los hombres que miraban fijamente a las cabras
 Zuzendaria: Grant Heslov
 barikua 5: 19:00/22:00
 zapatua 6: 19:30/22:30
 domeka 7: 19:30/22:30
 astelehena 8: 19:00/22:00
 martitzena 9: 20:00



Umeendako zinema

Percy Jackson y el ladrón del rayo
 Zuzendaria: Chris Columbus
 zapatua 6: 16:45
 domeka 7: 16:45

ELORRIO

Arriola antzokia

Todos están bien
 Zuzendaria: Kirk Jones
 zapatua 6: 22:30
 domeka 7: 20:00
 astelehena 8: 20:00



Umeendako zinema

Igelak eta Zapoak
 Zuzendaria: Simone van Dusseldrop
 domeka 7: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa

The road
 Zuzendaria: John Hillcoat
 zapatua 6: 22:00
 domeka 7: 20:00
 astelehena 8: 20:00



Umeendako zinema

Rompedientes
 Zuzendaria: Michael Lembeck
 domeka 7: 17:30

BOTIKAK

Barikua, 5
 09:00-09:00
 • Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
Zapatua, 6
 09:00-09:00
 • De Diego (Inbaurrondo 22 - Durango)
 09:00-13:30 (*14:00)
 • Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
 • Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
 • Balenciaga/ Unamunzaga/ Sagastizabal/ Campillo/ SanRoma/ Mugica/ Irigoien* (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
Domeka, 7
 09:00-09:00
 • Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
 09:00-22:00
 • Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Astelehena, 8
 09:00-09:00
 • Campillo (Montebideo 24- Durango)
Martitzena, 9
 09:00-09:00
 • Unamunzaga (Murueta Torre 2C - Durango)
 09:00-22:00
 • Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
Eguaztena, 10
 09:00-09:00
 • Navarro (Artekale 6 - Durango)
Eguena, 11
 09:00-09:00
 • Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112	UDALAK	Txanporta KE94 620 36 47
DYA94 620 28 00	Abadiño94 621 55 30	Errota KE94 466 94 16
Gurutze Gorria94 681 09 49	Atxondo94 682 10 09	Gorabide94 681 24 35
Osakidetza94 600 72 00	Berriz94 682 45 84	Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Ertzaintza94 466 93 00	Durango94 603 00 00	Nekazal bulegoa94 681 15 20
Suhiltzaileak112	Elorrio94 658 27 12	Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
GARRAIOAK	Garai94 681 63 93	Butanoa (UME).....94 681 08 77
Euskotren902 54 32 10	Iurreta 94 620 12 00	Araztegia94 620 28 00
Durango94 681 02 32	Izurtza94 681 35 48	Foru Ogasuna.....94 681 07 42
Bizkaibus94 448 40 80	Mallabia943 17 14 61	INEM Durango94 681 12 96
Pesa902 10 12 10	Mañaria94 681 89 98	Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Continental Auto945 286 466	Otxandio 945 45 00 20	Epaitegiak.....94 603 00 51
TAXIAK	Zaldibar94 682 70 16	KIROLDEGIAK
Abadiño946 814 470	UDALTZAINGOAK	Igerilekua
Matienea606 459 988	Abadiño94 621 55 33	Astola94 620 29 29
Durango Geltokia.....946 811 001	Berriz94 682 40 36	Igerilekua
Goco Tour946 202 860	Durango94 603 00 10	Atxondo94 623 14 38
Tele Taxi944 102 121	Elorrio94 682 02 18	Berriz94 682 43 74
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026	Iurreta94 620 08 88	Durango
Elorrio Geltokia946 820 040	BESTELAKOAK	(Landako).....94 621 51 30
J.L. Uriarte670 402 002	Arriola94 658 31 92	Durango
I. Estebez670 678 273	San Agustin94 603 00 21	(Tabira)94 621 51 50
M Galeano.....946 582 854	Zornotza Aretoa94 630 01 68	Elorrio94 682 10 27
Iurreta946 201 565	Gazte informazioa 94 603 00 30	Zaldibar94 682 73 74
Taxi auzunea688 618 690		

EGURALDIA

10° BARIKUA	Argitzaera egingo du. Egunaren lehen partean hodeiak izango dira oraindik nagusi. Elur-maila, oraindik, 1000 m-tik behera egongo da. Arratsaldean giroa arintzen joango da.
11° ZAPATUA	Zerua lainotuta dagoela emango diogu hasiera egunari, baina arratsaldean, apurka-apurka ostarteak zabalduko dira. Ekialdeko haizeak ere lagunduko du. Tenperatura ez da gorabehera handirik izango.
11° DOMEKA	
12° ASTELEHENA	
12° MARTITZENA	

OSASUN GIDA

PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILIZAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PEÑA

OINETAKO KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirurgia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

asteleheneretik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiroprodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00

ESKU-TERAPIA



Masajea osteopatiarekin
Aitor

Sasikoa 28 behea - Adikor zentroan
48200 Durango

tf. 619 17 61 53

ESTETIKA

OSASUN ESTETIKA ZENTROA
Dra. Aguirre

ESTETIKA TRATAMENDUAK

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Aclinen kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena 6
48200 DURANGO

tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psicologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

KIROLAK >



Argazkia: Mikel Polo

Gazteek osatutako taldea

Joan zen barikuan Cafés Baqué txirrindulari taldea aurkeztu zuten. Nobedade nagusi bi ditu taldeak: Joseba Beloki zuzendariordea izango da eta prestatzaile lanak egingo ditu; horrez gainera, lehenengoz, taldea 23 urtez azpikoa izango da.

Ruben Gorospe zuzendariaren berbetan "talde gaztea dugu; batez beste, 20 urtekoa". 11 txirrindularik osatuko dute taldea; tartean 19 urteko abadiñar bat dago: Borja Abasolo.

Joseba Belokiri buruz biek Euskaltelen batera aritu zirela gogoratu zuen: "Ni majasista lanetan nenbilen orduan". Biek "bikote ona" osatuko dutela deritzo, eta "dakiguna gazteei erakusten saiatuko" direla dio. Joseba Beloki esker oneko agertu zen, eta prestatzaile lana

"betidanik" gustatu izan zaiola aipatu du: "Entrenamenduek, fisiologia munduak eta antzeko gaiak betidanik erakarri naute. Ildo horretako lan batzuk ere egin ditut. Beraz, gustura eta ilusionatuta nago". Gaur egun, txirrindulariak sarritan "ofizio faltan" pasatzen ei dira profesionaletara, eta helburu nagusi legez horixe omen dute: "gazteei ofizioa eta lanbidea erakustea".

Aurkezpenean hainbat txirrindulari ohi batu zen. Mikel Zarrabeitiak eta David Etxebarriak, esaterako, ondo ikusten dute taldea 23 urtez azpikora mugatzea. Biek aldierazi zuten, gaur egun "geroago eta joera handiagoa" dagoela 23 urtez azpiko taldeak sortzeko. Belokiri buruz bere "esperientzia" azpimarratu zuten: "Gazteekin lan

ona egingo duela uste dut", adierazi zuen Mikel Zarrabeitiak.

Abasoloz gainera, honako hauek dira taldea osatzen dutenak: Asier Martin (Zierbena), Xabier Arribalzaga (Gernika), Jokin Morentin (Gasteiz), Jon González (Bilbao), Javier López de las Hazas (Nafarroa), Igor Plaza (Mungia), Eneko Murgiondo (Araba), Aitor Alvaré (Leioa), Jorge Salcedo (Sopelana) eta Juan Sebastian Tamayo (Zaragoza). ■ J.D.

**Cafés Baqué
Taldea 23 urtez
azpikoa izango da
lehenengoz**

24 Biharko Izarrak txapelketa hasi da

Urtero legez, goi mailako promesak izango ditu Biharko Izarrak pilota txapelketak. Atzo jokatu zuten lehenengo partidua. Finala ekainean izango da.

25 Xabi Etxeitari elkarrizketa

Athleticek utzita Cartagenan jokatu du jokalaria zornotzarrak. Orain aste bi joan zen hara. Pubiseko lesioa gaudituta, normaltasunez entrenatzen dabilela adierazi digu.



Goizeder jatetxean aurkeztu zuten aurtengo Biharko Izarrak pilota txapelketa. Argazki Julen

Promesarik onenak lehian Biharko Izarrak txapelketan

24 pilotari lehiatuko dira ekaineko finalean sartzeko borrokan

Atzo hasi zuten Mallabiko Biharko Izarrak txapelketako zazpigarren aldia. Urtero legez, etorkizunean zeresana eman dezaketen hainbat promesa batuko ditu. Guztien helburua txapel prestigiotsua janztea eta Mallabiko pilotalekura hurreratu ko diren enpresa handietako begiraleen arreta eurenenganatzea izango da.

Izan ere, txapelketan parte hartutako hainbat pilotarik eman dute gerora profesioalitarako saltoa. Iñaki Larrinaga eta Mikel Beroiz ditugu azkeneko adibideak. Elorriarrak iaz txapela jantzi zuen Yoldigaz, eta aurten Lehen Mailako Banakako Txapelketa ederra osatzen dabiren Beroiz 2008ko txapelduna dugu, Ollol-

lazzo txapelketa Iñaki Larrinagak irabazi zuen; 2008koa, berriz, Mikel Beroizek

Eskualdeko lau pilotari ibiliko dira lehian: Olalde, Aldape, Azpiri eta Landaburu

Madrilgo errugbi torneoan parte hartuko du Sukia eskolak

Bihar eta etzi Madrilgo Ciudad Universitariar jokatu duteen Nazioarteko Torneoan parte hartuko du Durangoko Sukia errugbi eskolak. Goizeko 09:00etan hasi eta 15:00etan amaituko dute torneoa. Estatu osotik zein Frantziatik batutako errubi taldeak batuko dira bertan. Tartean dago Getxo Rugby taldea ere.

Bestalde, nagusien taldeak partidu garrantzitsua jokatuko du, asteburuan, BUC Bartzelonaren kontra. Puntuak behar dituzte promozioa ekidindu gura badute, azkenaurreko daude-eta sailkapenean. ■J.D.

gaz batera. Biharko Izarrak parte hartutakoak dira, besteak beste, Asier Berasaluze eta Ibai Zabala ere.

Txapelketa jokatzeko sistema urterokoa da. Multzo bitan banatuta, denek denek kontrajokatuko dute. Azkenean garaiarik eta aldeko tantorik gehien dituzten aurrelari eta atzelariak pasatuko dira finalera. Finala ekaineko lehenengo hamabostaldian jokatu dute. Apirilera bitartean, eguenetan jokatu dituzte partiduak. Handik aurrera domeketan ere bai.

Eskualdeko lau pilotarik parte hartuko dute: Ander Olalde eta Andoni Aldape mallabitarrek eta Igor Azpiri eta Jon Landaburu elorriarrek. ■J.D.

Bizkaiko Trinkete Txapelketako finalak, etzi, Tornosolon

Domekan, 10:30etik aurrera, Bizkaiko Trinkete Txapelketako finalak jokatu dituzte Abadiñoako Tornosolo trinketeen. Uriarte abadiñarrak eta Agirrek Gordonen eta Ugarteren kontra jokatu dute. Sopoloztarrek erraz irabazi zuten finalerdietan (19-40). Uriartek eta Agirrek gogor lan egin behar izan zuten Gonzalez eta Martin kanporatzeko.

Aurretik kadete eta gazte mailako finalak jokatu dira. Lehenengo mailan, Txumulu-xueta eta Urduliz lehiatuko dira; gazteen finala Igorrek eta Lemoak jokatu dute. ■J.D.

Etzira atzeratu dute Elorrioko mendi bizikleta ibilaldia

Joan den asteburuko haizetearen ondorioz, domeka honetara atzeratu zuten Elorrioko mendi bizikleta ibilaldia. Lasterketa 10:00etan hasiko da plazan. Federatuentzako dohainik izango da, eta federatu bakoek 12 euro ordaindu beharko dituzte, aseguruia izan dezaten.

Hiru ibilbide prestatu dituzte; 16, 22 eta 30 kilometrokoak. Izan ere, helburua mendi bizikletan ibiltzen diren guztiei parte hartzea bermatzea da; horregatik antolatu dituzte hainbat gogortasun mailatako ibilbideak. Amaieran dutxak eta janaria eskainiko dituzte. ■J.D.

Mikel Bilbao

•Radio Euskadiko kazetaria



Zangotrabatuta

Amaitu da binakako txapelketako ligaxka, eta Pablo Berasaluze ez da finalurrekoetan egongo. Covaledan galdu zuten aukera Begino eta biek, baina aukera hori urria zen Tolosan Xala eta Zubietaren kontra galdu zutenetik. Txapelketa osoan zehar udan izan zuten txinperta galdu izanagatik kexu ziren, baina oso gaitza zen opor garai hartan biek izan zuten sasoiari eustea. Kirol urteak gorabeherak dauzka, eta txapelketa honek zangotrabatuta harrapatu du Asegarceko bikotea. Gauza bera esan daiteke Oinatz Bengoetxeagatik ere. Segururik, frogatuta geratu da zailena sasoi urte osoan zehar mantentzea dela. Egoera bereberean dauzkagu Axier Berasaluze eta Iñaki Larrinaga ere, bigarren mailakoan. Durangaldeko bikotea gaintitu beharreko bikoteetako bat zen bikoteen zilarrezko lehia hasi zenean, baina gastroenteritis batek asko ahuldu zuen Berrizko aurrelaria lehenengo partiduetan. Ordutik justuxeago jokatu zuen Axierrek fisikoki, eta batez ere promozioko norgehiagoka hau den moduko lehia gogor bati aurre egiteko behar den konfiantzarik barik. Garaipen batekin eta datorren asteburu honetan jokatuko den partidu bat falta dela, Aspeko bikoteak agur egin dio bigarren mailako binakako txapelketako semifinalean egoteko aukerari.

Berri pozgarriak ere izan ditugu. Ibai Zabala atzelari berriztarrari kostatu egingo zaio urte hasiera hau ahanzten. Hasteko, Iker Arretxerekin batera bigarren mailako horretan emandako erakustaldiagatik. Zabalak final horretan berriz jokatzeko aukera du. Eta, gainera, lehenengo mailakoan debutatzeko aukera ere izan du Ibaik, Otxandorenaren ordeaz, Begoetxearekin.

*Erredakzioan itzulita

Bideografik saritu dute Visual Sound jaialdian

Durangoko ekoiztetxearen 'Slack-line: grabitateari erronka' lanak jaso du saria



Slack line izeneko kirol jarduera landu dute. Bideografik

Bideografik-en *Slack-line grabitateari erronka* dokumentalak epaimahaiaren saria jaso du Bartzelonako Visual Sound jaialdian. 20 minutu inguruko dokumental-erreportajeak, slack line izeneko kirol-jarduera ikusgarriaren bitartez beldur psikologikoa gaintzeko moduari buruz dihardu.

Dokumentala lantzeko hiru toki aukeratu dituzte: Arrigunagako hondartza, Algortako portu zaharra eta Ereñoako harrobia. Lagun talde batek proposatutako erronkek beldur psikolo-

gikoak gaintzen eta oreka garatzen laguntzen dute.

Bideografik ekoiztetxeak beste sari batzuk ere baditu: Lekeitioko Bideo Bileran dokumental profesional onena, kasu, *Psicobloc: ur sakonetako bakardadea* lanagaz. ■J.D.

Dokumentalak slack line izeneko kirol jarduera jorratzen du

“Neuk ere ez nuen itxaroten lesiotik hain arin errekuiperatzea”



Orain aste bi egin zuten Etxeitaren aurkezpen ofiziala.

Xabi Etxeitak (Zornotza, 1987) Cartagenan jokatu du, denboraldia amaitu arte, Athleticek utzita. Pubiseko lesioa gaindituta, esperientzia hartzea du helburu.

Aste bi daramazu Cartagenan. Zelan joan dira lehen egunak? Harrera oso ona izan dut klubaren zein taldekideen partetik. Egia esanda, hauxe da etxetik kanpora bizi naizen lehenengo biderra, eta baneukan kezka apur bat, baina dena oso ondo joan da; hemendik aurrera futbolearen bakarrik pentsatzeko moduan nago.

Herria bera zelakoa da? Azkeneko urteetan asko hazi den herria da. Ez nuke esango herri zoragarria denik, baina badauzka toki politak. Erdigunea eta portua berriztuta daude, eta

“Inork ez dit ezer erregalatuko; egunero irabazi beharko dut titular postua”

pasealeku politak dauzka. Eguraldiari dagokionez, ez du nik itxaroten nuen egun onik egin; etorri naizenetik hiru-lau egun eguzkitsu bakarrik egin ditu.

Zelan eman da Cartagenan Athleticek utzita jokatzeko operazioa? Beste eskaintzarik izan duzu?

Abenduan Cartagenak ni fitxatzeko interesa erakutsi zuen. Beste talde batzuk ere agertu ziren, baina pubisetik operatu ondoren Cartagenak nigatik interesatuta segitzen zuen, eta hori detaile garrantzitsua izan zen erabakia hartzeko orduan.

Etxetik kanpora, talde eta bizi-modu berria... Kostatu zitzaizun erabakia hartzea ala argi zenuen horixe zela bidea? Banekien Athleticen ez nituela minutu asko izango, eta orain partiduak jokatzeko eta esperientzia hartzea komeni zait.

Ez da hartu behar, beraz, atzerapausu moduan.

Ez. Atzerapausua dela kontsideratu banu ez nintzen etorriko. Gainera, taldea ondo dabil ligan, eta ea esperientzia polita bizitzeko aukera daukadan.

Cartagena hirugarren dago, igotzea postuan. Ez da bigarren mailan lehiazteko aurkitu daitekeen talderik txarra.

Iaz igotzea lortu zuten, eta aurtentzen, orain arte, oso denboraldi ona egin dute. Dena dela, bigarren mailan bigarren itzuliak luze egiten dira. Partidu asko falta da, baina egia da hor goian gaudela, eta polita izango litzateke azkeneko jardunaldira arte igotzeko borrokan ibiltzea.

“Harrera oso ona izan dut klubaren eta taldekideen partetik”

Entrenamenduetan ere borroka egin beharko da hasierako hamaikakoan tokia irabazteko.

Hori argi dago. Inork ez dit ezer oparitu, eta egin behar duena da egunero gogo biziz entrenatu, entrenatzaileak jokatzeko aukera eman diezadan.

Urtarrilean pubisetik operatu zintuzten Alemanian, Munichen.

Halaxe da. Urte osoa neraman minekin, eta irtenbiderik onena operatzea zela erabaki genuen. Zorionez, ebakuntzak ondo irten zuen, eta oso pozik nago.

Sarritan lesio horiek izaten dira erabakia hartzeko gaitzenak. Ez dute jokatzeko eragozten, baina arazoak hortxe segitzen du.

Denbora asko neraman arazo horregaz. Aurretik beste irtenbide batzuk probatu nituen, pubis ingurua sendotzeko ariketak, esaterako, baina denbora joan ahala beste irtenbide bat eman behar zitzaizkion erabaki genuen.

Hilabete pasatxo joan da ebakuntza egin zizutenetik. Lesioa guztiz ahaztuta daukazu?

Bai. Astebete daramat taldekideekin normal entrenatzen. Egia esanda, hain denbora gutxian errekuiperatzea neuk ere ez nuen itxaroten. Ea eritimoa hartzen dudana eta jokatzeko prest nagoen laster.

Amorebietagaz hirugarren mailan jokatu zenuen; Bilbao Athleticegaz bigarren B mailan eta handik lehenengo taldera egin zenuen salto. Lehenengo biderra izango duzu bigarren mailan.

Egia da. Maila gogorra da, eta Betis edo beste talderen bat kenduta, beste guztiak antzekoak dira. Normalean taldeak taktikoki landuta egon ohi dira, eta gaitza da partiduak irabaztea.

Amorebieta taldean jokatuakoz zara. Jarraitzen duzu zure gaztetako taldearen ibilbidea? Lider daude hirugarren mailan.

Segitzen dut, bai, taldearen ibilbidea. Partiduren bat edo beste ere ikusi dut. Ea aurrerantzean martxa berean segitzen duten eta mailaz igotzeko moduan dauden. Oso lorpen polita litzateke herriarentzat.

Lorpen polita eta sekula lortu bako.

Inoiz ez du bigarren B mailara igotzea lortu, ez. Ni egon nintzen urtean play-offetarako sailkatu ginen, eta gero Barbastrok kanporatu gintuen. Etxean jokatu genuen lehenengo, eta kanporaketa gainditzeko aukera geneukala joan ginen hara. Gu aurreratu ginen, eta partiduaren azkenetan kontrako penalti bat adierazi zigun epaileak. Azkeneko kanpoan geratu ginen. ■ J.D.

“Herriarentzat lorpen polita litzateke aurtentzen Amorebieta mailaz igotzea”

Agenda

FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Portugalete
Zapatuan, 17:00etan, Tabiran
LEHENENGO ERREGIONALA
Iurretako - Errigoliti
Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelain
Zaldia - Elorrio
Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian
HIRUGARREN ERREGIONALA
Berriz B - Zorrontzako
Domekan, 12:15ean, Berrizburun
Elorrio B - Extremeño
Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden

ARETO-FUTBOLA
NAZIONAL A MAILA
Sasikoa - Elemental Peñucas
Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian
EUSKAL LIGA
Kurutziaga Ikastola - Kanikas Infracoman
Domekan, 10:00etan, Landako kiroldegian
GOREN MAILA
Mallabia Bastida - Zuentzat Apolo XII
Domekan, 17:30ean, Zaldibarko kiroldegian
LEHENENGO ERREGIONALA
Presion Break - Elorrioko B
Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun
BIGARREN ERREGIONALA
Gu Lagunak - Begoñazpi
Zapatuan, 15:30ean, Landako kiroldegian
Mendibeltz - Bikaina
Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroldegian
Dantxari - Zerbezotxo
Domekan, 17:00etan, Lanbide Heziketako Institutuan
EMAKUMEEN LIGA
Kulturala - Soloarte
Zapatuan, 16:45ean, Landako kiroldegian

SASKIBALOA
LEHEN ERREGIONALA
Anbotopeko - Marrazoak
Zapatuan, 18:00etan, Tabiran
Julza-Zaldia - Otxarkoaga
Zapatuan, 18:30ean, Zaldibarko kiroldegia

ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Durango Ilarduya - BUC Barcelona
Domekan, 12:00etan, Arripausuetan

SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak	Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak	Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak
1- Amorebieta58	1- Cafés Aitona6 (+60)	1- Bera Bera20 (+331)
2- Real Sociedad B...53	2- Ardoi5 (-1)	2- Gernika17 (+260)
3- Elgoibar47	3- Zornotza5 (+55)	3- Cafés Aitona ...15 (+130)
4- Portugalete46	4- Bidegintza5 (+13)	4- Ardoi16 (+376)
5- Zamudio44	5- Viajes Marfil5 (+38)	5- Las Gaunas ...14 (+63)
6- Beasain43	6- Padura4 (+9)	6- Tabirako12 (+149)
7- Amurrio43	7- Seky.es3 (-46)	7- Obenasa ...12 (-64)
8- Kulturala42	8- Tabirako3 (-31)	8- Elejalde10 (-41)
9- Gernika42	9- Arabako EHU2 (-48)	9- Deusto-Loiola .10 (+38)
10- Basconia39	10- Goierri Verkol2 (-49)	10- Arabako EHU 8 (-1)
11- Arenas38		11- Atletico SN 8 (-42)
12- Zalla35		12- Abaroa 8 (+33)
13- Santurtzi34		13- Getxo 7 (-165)
14- Leioa34		14- Artieda 3 (-221)
		15- San Ignacio 2 (-412)
		16- Irlandesas 1 (-434)



Durangoko Kulturalak 39 gol sartu eta 33 jaso ditu aurtengo denboraldian



LAUHANKA[>]



Orain dela 2.500 urte baino gehiago etxekotu zen huroia

Huroiaren eragozpenetako bat bere usaina da

Arrak 45 zentimetro inguru dauka; emeak 40. Kilo eta erditik bi kilora pisatzen dute.

Huroia oso jostalaria eta bihurria da, baita lotia ere

Haragijalea da, bere dieta proteinan oinarrituta dago, eta hegazti haragia jaten du, batez ere.

Huroia ezagun bilakatu da azkeneko urteetan etxeko animalia berezi moduan. Huroia aukera aproposa izan daiteke beragaz egoteko denbora gutxi daukaten pertsonentzat. Izan ere, ez du txakurrak behar duen besteko zaintzarik behar, baina ez dira katuak besteko independenteak. *Mustelidoen* familiakoa da; hau da, ugaztun haragijaleak dira. Etxeko huroia ez da basatien espezie berekoa. Huroia etxekotu egin da, orain dela 2.500 urte baino gehiago. Hala ere, jabearen erantzukizuna da animaliak jokaera egokia izatea.

Ezaugarriak

Huroi arrak 45 zentimetroko luzera izaten du; emeak, berriz, normalean ez dira 40 zentimetrotara heltzen. Kilo eta erdi eta bi kilo arteko pisua edukitzen dute, eta normalean ilaje iluna

edukitzen dute, orban zurikoak edo albinoak ere aurkitu daitezkeen arren. Adituek diote oso jostalari eta bihurriak direla, baina lotiak ere badira. Batez beste, zortzi urte bizi izaten dira.

Geldiezinak dira, etxeko txoko guztiak miatu eta bertan ezkutatzea gustatzen zaie-eta. Beraz, neurriak hartu behar dira segurtasuna bermatzeko. Arinak dira, eta trikimailuak ikasteko abilezia dute. Gauzak erakusteko momentu aproposena urte batetik aurrera da.

Animalia honen eragozpenetako bat usaina da; antzutea izan daiteke konponbide bat, baina, hala ere, usaina ez da guztiz kentzen. Beste aukera bat hilean behin bainatzea litza-teke, beti be, berarentzat aproposa den xaboeekin. Huroia maitakorra bada ere, beharbada ez da umeentzako moduko masko-

ta. Izan ere, umeak animalia harterakoan min egin diezaiotke eta, ondorioz, huroiak haginka edo hatzamarra egingo lioke defentsa moduan.

Elikadura

Haragijalea da, bere dieta proteinetan oinarrituta dago, eta osagai nagusia hegazti haragia da. Zuntza ez du ondo digeritzen, eta arraina ez zaio gustatzen; gainera, arraina jateak gorputzaren usaina gehitu diezaiotke. Huroientzako janari prestatua erraz aurkitu daiteke.

Gaixotasunak

Adituen arabera, bi txerto jarri behar zaizkie, bereziki; amorruarien aurkako txertoa eta mukierriaren kontrakoa. Barne eta kanpo parasitoak hiltzea ere garrantzitsua da, batez ere, kalera pasiatzera atera gura badugu.

Hiru urteko haur bat daukat eta gure txakurrak gaixotasunen bat kutsatzeko zer arrisku dagoen jakin nahiko nuke. Nekane (Durango).

Oso txikia da arriskua. Hala ere, oinarrizko higiezia zaintzea garrantzitsua da. Haurra pediatrarengana eroan behar da lantzean behin, baina etxean hartu beharreko neurriak, batez ere parasitoen gaixotasuna ez kutsatzeko, hauexek dira: txakurrak aurpegian ez miazkatzea, ikutu ondoren eskuak eta jostailuak xaboiagaz garbitzea. Amak ere gauza bera egin beharko luke biberioia edo bularra eman aurretik. Txakurra albatariarengana eroan gaixotasun posibleak denboraz antzemateko.

Bidali zuen galderak helbide honetara (izena eta herria ipinita):

astekaria@anboto.org



Alberto Cimarro
Etorbide Albatari klinika

LORENZO CUBERO

- Eraikuntzak eta erreformak
- Igeltserotza orokorra
- Gremioen koordinazioa

**Ekohareatzaile
zerbitzua.**



Hare ekologiko bidezko garbiketa berezia dispertsiorik gabe, zur zaharrear, harri landuan, hargin-lanetan, grafittietan eta fatxadatan oro har.





anboto.iragarkilaburrak.com

Aisia/kirola
ANIMALIAK
SALDU
Txakurkumeak saltzen ditut.
Euskal artzai txakurkumeak daude salgai. 2 hilabete betetzeko dauzkate. Interesatuta egonez gero deitu telefono zenbaki honetara: 645 709 138 (Enrike)

BILDUMAK
EROSI
Bertoko garagardoaren txapa. Bertoko garagardoaren txapa erosiko nuke. Euskal Herriko txapen bilduma betetzeko dagoeneko desagertutako Bertoko garagardoaren txapak falta zaizkit. Telefonoa: 695 452 194
Tintin-en urre beltzaren lurraldean komikia. Tin-

tin-en Urre beltzaren lurraldean komikia erosiko nuke. Bilduma osatzeko falta zaidan ale bakarra da. Komikia euskarazkoa izan behar du. Telefonoa: 625 921 057
GAINERAKOAK
Garagardo txapen kolezio osatzeko trukeko prest. Garagardo txapen kolezioa osatzeko trukeko prest. Edozein gara-

gardoren txapak aldatu nahi badituzu, deitu eta trukaketo ditugu. Telefonoa: 695 452 194
GAINERAKOAK
EMAN
Biodantza ikastaroa. Biodantza ikastaroa eskaintzen dut, barikuetan, Elorriko Lourdes ikastetxean. Telefonoa: 626 661 292

Familia/etxea
ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK
SALDU
Ohe artikulatua. Ohe artikulatua salgai, orain dela hiru hilabete erositua. Mugikorra: 639957569
HAURREN TXOKOA, OSAGARRIAK
SALDU
Bikientzako auklia. Bikientzako McLaren mar-

kako auklia. 2007koa. Telefonoa: 655742241
Haurrak eramateko kanguroa. Bular aldean haurrak eramateko kanguroa. 18 euro. Telefonoa: 655742241
Haurrentzako eskaileretarako segurtasun barrea. Hainbat luzeratarakoa. 40 euro. Telefonoa: 655 742 241

Haurrentzako moises antzeko sehaska. Leander markakoa, hiru hankakoa eta 9 hilabetetan bakarrik erabilia, egoera ezin hobean. Koltxoia, hiru hankakoa eta beloa barne, izararik ez. 190 eurotan. Telefonoa: 655 742 241
Haurrentzako ohea eta sehaska. Ikea-ko Diktad haurrentzako sehaska-ohea. 70x140 zm. Kol-

txoiak bi altueratan ipintzeko aukera du.
Latex-eko Ikea-koa ez den koltxoia barne. 95 euro. Telefonoa: 655 742 241
Leku hau zure iragarkiaren zain dago

INMOBILIARIAK

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 - Baxo - 48200 Durango
Tel.: 94 681 64 49 • DURANGO • info@etxetxo.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Pinondo: Duplexa. 126 m2. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Franzisko Ibarra: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 318.600€.
- Durango: 120 m2. 4 logela eta 2 komun. Egoera ona.
- Alluitz: 150 m2. 4 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara.
- J. Olazaran: Erdi berria. 95 m2. 3 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara. Garaje itxia.
- Tabira: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Garaje itxia.
- Durango: 2 logela. 156.300€.
- Plateruen Plaza: Atikoa. Estreinatzeko. 2 logela. Terraza handia. Garajea.
- Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi berria. Bizitzen sartzeko moduan.
- Montevideo: (Jesuitas). Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
- Ezkurdin: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire girotua. Garajea.
- Ezkurdin: 70 m2. 1. go solairua.
- Tabira: 80 m2. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Guztiz jantzia. Garajea aukeran. 216.400€.
- Sasikoa: 2 logela. Erdi berria. Ganbara. Garaje itxia.
- San Ignazio: 80 m2. 3 logela. Sukalde handia. Trastelekua. Garajea.

IURRETA

- Askondo: 3 logela. Terraza. Garajea aukeran. 192.400€.
- Bidebarrietan: 3 logela. Igogailua. Terraza handia.
- Zubiaurre: 3 logela. Guztiz jantzia. 210.000€.

ABADIÑO

- A. Baesclin: 3 logela. Ikuspegi politik.
- San Trokaz: Logela bakarra. Erdi berria.
- Iturrirru: Berria. 2 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara eta trastelekua. Garajea.

ZALDIBAR / BERRIZ

- Zaldibar: Berriztatua. Eguzkitsua. 3 logela, egongela eta sukalde.
- Zaldibar: Zalduasolo. 90 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela. Terrazak. Garajea aukeran.

BERRIZ

- Iturriza: 3 logela eta 2 komun. Eguzkitsua.
- Legaña: 2 logela eta egongela. Balkoia. Eguzkitsua.

BISITATU GAITZAZU BULEGO BERRIAN, SAIBIGAIN 1, (Fray Juan de Zumarraga kaletik sarrera).

Amboto
San Agustinarde, 4 - 1 E.A. DURANGO
TE: 94 681 35 62 email: amboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

BERRIZ

- Logela, sukalde "amerikarra", egongela eta komuna. Berria estreinatzeko. 96.000 €.

DURANGO

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak, sukalde jantzia eta horma-armairuekin. 150.000€-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamento berriak eraikitzen. 700€ hilero.
- Jose Maria Iparragirre: 3 logela, sukalde despen-tsarekin, egongela eta 2 komun. Gas naturaleko berogailua eta igogailua. Aukera paregabea.
- Askatasun Etorbidea: Eraiki berriak. 2, 3, 4 eta logela bakarrekoak.
- Alluitz: 3 logela, 2 komun, sukalde balkoiarekin, egongela eta terraza. Garaje itxia. Estreinatzeko. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Tabira: 3 logela, egongela, sukalde eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
- San Ignazio: 3 logela, sukalde, jangela, despentsa, egongela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea.
- Durango: 3 logela, sukalde, egongela, jangela eta 2 komun. Garajea aukeran.
- F.J. de Zumarraga: 4 logela, egongela balkoiarekin, sukalde terrazarekin eta 2 komun. Orientazio ona.
- Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukalde eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, trastelekua eta garajea. Prezio interesgarria.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukalde. Leku onean.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukalde eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantzia, komuna eta eskegitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztatua berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukalde eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukalde.
- San Fausto: 3 logela, sukalde, egongela eta komuna. Prezio interesgarria.
- Intxaurren: Apartamentua. Logela, komuna, sukalde-egongela jantzia, eskegitokia eta trastelekua.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLExA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukalde. 2 terraza eta garaje itxia.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukalde, eta komuna. Ganbara.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukalde eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - Baxo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamentu berriak eraikitzen.
- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen.
- Abadiño: Txale bifamiliarra lur eremuarekin.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen.
- Erretentxu: Txale bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.
- Otxandion: Familia bakarreko etxea lursailarekin.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Muntsaratz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun, balkoia eta ganbara. Egoera oso onean. Igogailua. Eguzkitsua.
- Muntsaratz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara (berria eta egoera oso onean)
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara. (berria hobekuntzekin).
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea trastelekuarekin eta ganbara. (eguzkitsua eta ikuspegiak).
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara. (berria, erdi jantzia).
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen Plazan: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela, 3 komun, garajea eta trastelekua.
- Plateruen Plaza (ERMODORANTZ): Halla, egongela-jangela, sukalde-jantzia, 2 logela eta 2 komun.
- San Agustinalden: Apartamentu berriak salmantan.
- San Fauston: Halla, sukalde-jantzia, 2 logela eta komuna. Etxe jantzia.
- San Fauston: Halla, egongela, sukalde, 3 logela eta komuna.
- San Fauston: Halla, sukalde, egongela-jangela, 3 logela, komuna, despentsa eta ganbara.
- San Franziskon: Halla, sukalde, egongela, 3 logela eta komuna. 2 balkoi eta trastelekua.
- Sasikoa: Halla, egongela, sukalde-jantzia, 2 logela, komuna, eta ganbara. Etxe jantzia.
- Sasikoa: Halla, egongela, sukalde-jantzia, 2 logela, komuna, ganbara eta balkoi zabala. Etxe jantzia.
- Tronperrin: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela, 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea. Etxe jantzia.
- Txibitenan: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela, 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia ikuspegiak.
- Untzillaitzen: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta trastelekua. (erdi jantzia).
- Zeharkalean: Halla, egongela-jangela, sukalde, 2 logela, komuna eta terraza zabala.


ISD
Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1, 2, 3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta ganbararekin 200.000€+ BEZ
- 2 logela garajea eta ganbararekin 233.000€+ BEZ
- 3 logela garajea eta ganbararekin 350.000€+ BEZ
- Tabira: Logela bakarreko apartamentuak. Ganbararekin.
- Pagasarri kalea: Azkeneko etxebizitzak salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela. Garaje itxia.
- Abadiño: 2 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara.
- Zaldibar: Aukera. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berogailua. Balkoia. Garajea.
- Zaldibar: Lursaila salgai eraikitze aukerarekin.
- Durungaldea: Txaleak hainbat herritan.
- Durungaldea: Baserriak, pabilioiak eta garajeak hainbat zonaldeetan, salgai edo alokairuan.
- Andra Mari: 30 m2-ko terraza. 2 logela. Berriztatua.
- Mendizabal: 63 m2. 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara.
- Fray Juan de Zumarraga: 75 m2. Duplexa. 2 logela. Garajea eta trastelekua.
- Askatasun - Onituri (Ezkurdi): Erdi berria. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Ganbara.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. 2 logela. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Fray Juan de Zumarraga: 57 m2. Erdi berria. Logela bakarra.
- Alluitz - Fray Juan de Zumarraga: 50 m2. Erdi berria. Logela bakarra.
- Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona. Garajea.
- Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
- Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukalde eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
- Herriko Gudarien kalea: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
- Monago Torre: 130 m2. 3 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara.
- Ermodo: Erdi berria. 90 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Murueta Torre: 90 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Pagasarri kalea: 94 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Antso Eztegi: 97 m2. 3 logela. Ganbara. Berriztatua.
- San Franzisko: 75 m2. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. 2 balkoi.
- Astepe: 3 logela. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du. Guztiz beriztatua.

DENPORAPASAK >

HITZ GEZIDUNAK >

	Bet-..., bat-batean	▼	Suitzako hiria	▼	Itzaltzeko joera du
	Larre		* IRUDIAN		
	Galdetegi mota	►			
	Landare mota				
Telebista-ikusle	Edo	► ▼			
Alkohol mota	Gozoki handiak				
Sobera, gehiegi			Behorra bero egon	►	
Izaera berekoak			Dardara		
Itokarrean					Oxigenoa
Bizkaiko ibaia					Gizon izena
			Adar	►	
			Arrainen galbidea		
Eskumutur		▼			
Osmioa					Bilo
			Martxo	►	
			Aluminioa		
Bi gehi bi		▼	Marinelen zerrenda	►	
AEBetako estatua			Kontso-nantea		

SUDOKU >

1

		8	5	2		
		7				9
			9	7	8	5
	5	9	2	7	6	1
1	6	3			4	
	7	4		6	3	9
	9			1	8	4
4		2	5			
	8	1	4		9	3

2

		3	4		
			1		2
6			8	7	5
2		6	4		9
3				1	
5	4		3		
			5	6	
4	2				
		9	7	5	

6	1	8	5	2		
4	5	2	7	6	1	3
7	4		6	3	9	8
9			1	8		4
4		2	5			
	8	1	4		9	3

6	8	1	8	5	2		
4	5	2	7	6	1	3	
7	4		6	3	9	8	
9			1	8		4	
4		2	5				
	8	1	4		9	3	

ZORION AGURRAK >


agurrak: zorionak@anboto.org-ra Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Laidak hiru urte egingo ditu datorren astelehenean, martxoaren 8an. Zorionak eta mosu handi handi bat, familia guztiaren partez.



Ostegunean, martxoaren 4an, **Elene Ugalde Arteagak** 8 urte egin ditu. Egun zoragarria pasatu guraso, Auritz, aitita-amama eta familia osoaren partez.



Martxoaren 5a **Luis Mari Ugaldearen** urtebetetze eguna eta egun berezia eta garrantzitsua da. Zorionak, familia osoaren partez. Domekan bazkaria zure kontu, ezta?



Zorionak Gorka eta Tamarari lararen etorreragatik. Familiako neskatila politena, **Iara Martin Muñoz** otsailaren 8an jaio zen, domekan. Zorte ona ematen omen du....



Zorionak **'Jurjurfá'** gaur, martxoaren 5ean zure urtebetetze egunean. Musuak familia guztiaren eta, batez ere, lararen partez, baduelako izekori belarritik tiratzeko gogoa.



Haizea Lopez Arginzonizek martxoaren 6an 9 urte egingo ditu. Etxeko guztien partez, zorionak zure urtebetetze egunean. Ondo pasatu!



Ibai Lopez Arginzonizek ere martxoaren 6an 9 urte betetzen ditu. Zuri ere zorionak etxeko denek partez, eta ondo ospatu eguna.



Argazkiko printzesatxoak 6 urte egingo ditu martxoaren 10ean. Txokolatada handi batean lagun artean ospatu dugu. Zorionak, aita, ama, Enaitz eta familiaren partez.



Zorionak, bikote! Etxeko txikiak, **Aimarrek**, urtetxo bat egin zuen martxoaren 2an, eta osaba **Josek**, beriz, martxoaren 10ean egingo ditu. Etxeko guztien partez, horrela jarraitu dezazuela, hain majo urte askoan. Musu handi bana bio!

HOROSKOPOA >



Aries

martxoak 21 - apirilak 20

Primerako astea izan duzu. Dena zure alde duzula sentitu duzu, eta gauzak itxaroten zenuen legez irten zaizkizu. Aprobetxatu!



Taurus

apirilak 21 - maiatzak 20

Zure baitan daukazu kanpora ateratzeko momentua da. Lasaiago egongo zara horrela.



Gemini

maiatzak 21 - ekainak 20

Badakizu arazoei zelan aurre egin. Oso bizitza-filosofia positiboa daukazu eta garrantzitsua da horri eustea. Gura duzuna lortuko duzu!



Cancer

ekainak 21 - uztailak 20

Noiz arte jarraituko duzu horrela? Ingurukoak aspertzen dabilta zure jokaeragaz. Hustu barrena! Arazoak konpontzeko bidea hori da.



Leo

uztailak 21 - abuztuak 23

Aztoratuta zabilta, batez ere, laneko arazoak direla-eta. Lanekoak lanean utzi behar dira, eta ez lana etxera eroan. Hobeto ibiliko zara!



Virgo

abuztuak 24 - irailak 23

Bikoteagaz sintonian zaudela sentitzen duzu. Aldikada ona daramazue, beraz, aprobetxatu planak aurrera eramateko.



Libra

irailak 24 - urriak 23

Ez da momenturik onena zuzetatz, eta ez duzu hori jendeak jakiterik gura. Horrela jarraituz gero, beharleku bikoitza daukazu.



Scorpius

urriak 24 - azaroak 23

Bikoteagaz momentu onak eta txarrak izatea normala da. Ezin duzu zailtasunen aurrean ezkutatu eta ihes egin. Hartu erabakia!



Sagittarius

azaroak 24 - abenduak 23

Etxean ez duzu giro onik aspaldian. Zuk, zure aldetik, egizu ahal duzun guztia egoera hobetzeko. Honi ere emango diozu buelta laster!



Capricornus

abenduak 24 - urtarrilak 20

Ez dakizu zure desioak zelan bete. Gainera, ezinezkoa dela deritzozu. Baina itxaropena da galtzen den azkena. Ekin gogor; lortuko duzu!



Aquarius

urtarrilak 21 - otsailak 18

Norberak egiten du bidea, erabakiak hartzen dituen heinean. Baina ez estutu, esperientzien bidez asko ikasten dugu eta akatsetatik ere bai.



Piscis

otsailak 19 - martxoak 20

Triste samar zabilta aspaldian, eta zuk ere ez dakizu zergatik. Irten eta buelta bat eman. Animatuko zara!



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako
okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Aste bitartean
menu berezia 16 euro, 18e/ardoa,
20e/kriantza. Afariak egunero
astelehen eta igandeak ezik.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehena eta
martitzen gabaz itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Merendolak.

Jatetxe gida



Ganeko Etxe

Elizondo, z/g Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe
gozoan, etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro.



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 laguntzako jangela.



Templete Jatetxea

Hotel Kurutzia, Durango
Tel.: 94 620 08 64

Ospakizunak.
Karta.
Eguneko menua.
Menu berezia.

Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02



Jon Artza
Soziologoa

"Trena lurperatzeak on egingo dio Durangoko merkataritzari"

Durangoko merkatarien egoeragaz pozik dago Jabier Arrieta; herria hiri txiki bihurtzen dabilela dio

Kasualitatez heldu zen Jabier Arrieta merkataritza mundura. Kamisetarako marrazkiak egiten hasi zen, eta duela hiru urte kamiseta horiek eta bestelako arropa saltzeko Sylke izeneko denda jarri zuen Goienkalen. Asteburu honetan Durangoko Aukera Azokan egongo da. Durango merkatarientzako aukera handiak eskaintzen dituen herria dela uste du Arrietak.

Erosleentzat izateaz gainera, zuentzako ere aukera azoka da asteburukoa?

Bai. Durangon zortea dugu Landako pabilioia moduko leku bat daukagula. Handia da, argi asko dauka, eta dendarietzako

biltegi geratu zaiguna saltzeko oso aukera ona da. Erosleentzako ere ez dago tranparik. Dendan

izandako genero bera aurkeztuko

dugu, merkeago. Batzuetan galtzen ere irtetzen gara, baina merezi du.

Zelan ikusten duzu Durangoko merkataritzaren egoera?

Beti baikorra izan naiz ni. Merkataritza ona daukagula uste dut, eta eskualdeko jendea asko etortzen da bertara. Perco izeneko azterketa batean hori ondorioztatu dute. Durangon denetik dago, eskaintza oso ona da. Alde Zaharrean bizitasuna dago, eta trena lurperatzen dutenean, Madalena eta Alde Zaharra gerturatuko dira eta horrek ere on egingo dio Durangoko merkataritzari.

Durangoko merkatariek zer premia daukazue?

Udalaren partetik babes handiago eskatu genuke. Durango momentu honetan herri handi bat izatetik hiri txiki bat izatera pasatzen ari da, eta herriak aukerandiak izan ditzake.

Arropa saltzeaz gain, diseinatu ere egiten duzu...

Bai, kamiseta marka bat daukat: Koiote. Marrazkiak egiten ditut, eta, batez ere, udako arropetan jartzen ditut gero nire marrazkiak.

Zelan hasi zinen saltsa honetan sartzen?

Enpresa mundutik nator ni. Kimika ikasten amaitu nuen, eta ez dauka zerikusirik, baina diseinu grafiko gustatzen zitzaidan, eta ikastaro bat egin nuen. Oinarrizko gauza batzuk ikasi nituen, eta kamisetak egitera animatu nintzen.

Diseinura kasualitatez sartu zinen. Lehenago ere gustatzen zitzaizun denda mundua?

Ez. Ni ez naiz izan inoiz denda zalea eta moda zalea. Etxean denda bat jarriko nuela esan nuenean, asko harritu ziren. Hasieran ideia kamisetak saltzeko denda jartzea izan zen. 2004tik egiten ditut kamisetak. Kamisetekin bakarrik egitea arriskutsua zen, eta beste marka batzuekin batera hasi ginen. Mundu honi buruz ideiarik ere izan barik.

Krisia igarri duzu?

Guk hiru urte daramatzagu honetan, eta apurka-apurka salmentak igotzen ari gara oraindik. Neguko lehen hilabeteetan nahiko baju ibilginen, baina Gabonetan eta merkealdietan oso ondo ibili gara.

Moda mundua zelan ikusten duzu?

Egia esan, moda jarraitzen duen jendeak ez nau asko erakartzen. Arropa denda bat daukat, baina modaz gutxi dakit. Garrantzitsuen norberari gustatzen zaion arropagaz janztea dela uste dut.

Jabier Arrieta

Kamisetak diseinatzen ditu

Durangoko Sylke arropa dendaren jabea da



Durangaldea

Klasea hasi eta handik gutxira niregana zuzendu zen irakaslea. Nire gelako ikaskideei, labur-labur ni bizi nintzen eskualdean olakoz azalniezaien eskatuzidan. Jorratzen ari ginen gaiarekin zerikusia bazuen ere, harritu egin ninduen galderak. Bertsolariengisa inprobisatu beharrean aurkitu nintzen. Ez dut oroitzapen zehatzik, baina honelako zerbaite esan nuen:

"Niretzako Durangaldea Oiz edo Anboto menditik egoki irudika daitekeen hiruki bat da. Hiruki horren erpinak, lurreta, Zaldibar eta Elorrio izango lirakeke. Irudigeometriko honen ardatza Ibaizabal ibaia eta, honen albo bietan, lautadaxo bat. Bertan arboladiak, zelaia, baserriak, etxebizitza multzoak eta fabrikak ikus daitezke. Fabrikak orain urte batzuk baino ke gutxiago botatzen dute, baina, aitzitik, gero eta eraikin eta errepide gehiago ikusten da, berdea txikituz doan heinean.

Zerbitzuz eta jardueraz bizi den eskualdea da. Hiriburu handietako gehiegizko estimuluetatik urrun, lasai pasiatzeko aukera eskaintzen duena. Bertan bizi garenok, denok elkar ezagutzen dugula badiogu ere, nik, paseoan nabilela, sekula ikusi ez dudana pertonekin topo egiten dut. Edo horrela iruditzen zait, behintzat.

Gerediagako zelaia eta Astolako batzar-etxeak izaera historikoa ematen dioten eskualde honi aspalditik sorginikeri ospea atxiki izan zaio. Horren lekuko, duela mende batzuk izan ziren inkisizio prozesuetan, sorginak ziren akusaziopean, erre zituzten herritarrik. Nik honi buruz, zer esango dut, bada, galegoen erantzun bera emango nizueke: ez omen daude, baina, egon badaude"

JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK



Salmenta
eta
konponketa



HONDA
STIHL
SAME
BCS
CARON
VIKING

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel-Faxa: 94 623 18 03